

Kultura

Ray Fernándezek eta Cuatro Tanquistas y Un Perro Kubako taldeak kontzertua eskainiko dute bihar, Plateruenean > 11



Amak eta kirolariak

Bada zerbait Naia Alzolak, Oihana Azkorbebeitiak, Silvia Triguerosak eta Maider Undak partekatzen dutena: amatasunaz eta kirolaz gozatzeko gogoia. > 4 Gehigarria



Hasi da tren geltoki zaharreko garaje eta tailerrak botatzeko obra Durangon

Trena lurrazpitik igarotzen hasi eta bi urtera, tren geltoki zaharreko garajeak eta tailerrak botatzen hasi dira. Gainera, datorren astean ekingo diete trenbidearen azpiegitura kentzeko lanei. 835.000 euro erabiliko dituzte obra garatzeko. Horrela, 62.000 metro koadroko eremu erabilgarria izango du Durangok. Eguaztenean obren hasiera bisitatu zuten Ana Oregi sailburuak, Antonio Aiz sailburuordeak eta Aitziber Irigoras Durangoko alkateak. > 3



Aboiz

www.aboiz.es

Arroitabeiti baserria,
San Migel auzoa, 2 GARAI
946 228 240 · info@aboiz.es

Esklusibotasuna eta dotorezia
Oiz mendiaren magalean.
Bizitza osoan oroitu duzu.
Ingurune natural zainduak
sentsazioz beteko zaitu.



Zornotza > 6

ANBOTO Zornotzara zabaldu zela urtebete, erronka berriekin

Zaldibar > 8

Psikiatrikoko lursail bat berdegune bilakatuko dute

Durango > 2

Etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko deia egin dute

Zornotza > 6

La Otra Miradak ongintza jaialdia antolatu du biharko

Herririk herri

Etxe hutsak alokairu sozialean ipintzeko deia egin dute

Eusko Jaurlaritzak alokairu soziala indartu gura du; Durangoko 132 etxe daude Alokabide zerbitzuan

DURANGO Markel Onaindia Eusko Jaurlaritzak Alokabide zerbitzuaren berri eman zuen joan zen asteburuan, Durangon, Andra Mariko elizpean ipinitako stand batean, eta etxe hutsak alokairu sozialean ipintzeko gonbidapena egin zien herritarrei. Hain zuzen ere, etxejabeen eta alokairuan bizi gura dutenen arteko bitartekaritza egiten dute Alokabide zerbitzutik. Eskatzaileei diru-sarreraren araberako kuota jartzen diete, eta etxejabeek hileroko errenta zein etxearen egoera ona bermatzen

dizkiete. Arduradunek azaldu dutenez, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan 80.000 etxe daude hutsik, eta horien erdiak alokairura bideratzeko aukera dago. Horregatik, alokairu soziala indartu guran, herri askotan dabilta kanpaina egiten.

375 eskatzaile

Gaur egun, Durangoko 132 etxe daude Eusko Jaurlaritzaren alokairu programan, eta ez dute eskaera asetzen. Izan ere, 375 dira Alokabiden izena emanda duten durangarrak.



Alokabideak joan zen astean, Andra Mariko elizpean, ipini zuen standak.

San Rokeko etxeak

Bestalde, San Roken eraiki dituzten babeseko etxeetan, oraindik 33 daude saldu barik, eta etxe horiek alokairu publikora bideratzeko proposamena onartu zuen udalbatzak. EH Bilduko zinegotziek proposamen horren

berri eman diote Visasari, promozioaren sustatzaile den Jaurlaritzaren menpeko enpresari. Koalizioaren esanetan, gestio hori egiteko dauden aukerak aztertu dituzte Visasako ordezkariekin. Baina, egoera aldatzeko, "borondate politikoa" behar

dela dio, "eta gaur egun EAJ-ren udal taldean ez dago". EH Bilduk ahalik eta etxe gehien durangarren esku jartzea gura du. "Planteamendu orokor bat behar da garatu barik dauden lurzoru publikoen zein hutsik dauden etxebizitzaren inguruan".

Larrialdietarako erizaina eta anbulantzia eskatzen dabil PSE-EE

Inguruko herrietara ere zabalduko dute kanpaina

DURANGO M.O.

Durangoko PSE-EE sinadurak batzen hasi da, Landakoko larrialdietarako zerbitzua handitzea eskatzeko. Hain zuzen ere, bigarren erizain bat eta anbulantzia medikalizatu bat ipintzea eskatzen du alderdiak, kalean zein www.change.org atarian martxan jarri duen ekimenagaz. Durangon ez ezik, eskualde mailan eragina duen arazoa dela diote sozialistek: "Benetako dramak bizi dira Durangaldean dagoen osasun hornikuntza eskasagatik". Horregatik, inguruko herrietara ere zabalduko dute sinadura bilketaren kanpaina.

Larrialdietako beharginek Osasun Sailari eskaera zeha-

tzak egin zizkieten, lan baldintzak eta gaixoentzako zerbitzua hobetzeko. Horien artean zeuden bigarren erizain bat eta anbulantzia medikalizatu bat ipintzea zentroan bertan. Izan ere, gertuen dagoen era horretako anbulantzia Gernikan dago.

Pilar Ríos sozialistak azaldu du ume batek oraintsu anbulantzia medikalizatua behar izan duela, baina ez zegoela erabilgarri. "Eusko Jaurlaritza ez zen familia horrek bizitako dramaren lekuko izan".

Legebiltzarrak bigarren erizain bat ipintzea onartu zuen, eta EH Bilduk iniziatiba hori zelan dagoen galdetu dio sailburuari. Momentuz, baina, Jaurlaritzak ez du erabakia beteko.

Udalak diruz lagunduko ditu Saharako kanpalekuak

DURANGO M.O.

Sahararen deskolonizazio prozesuaren 40. urtemuga dela-eta, adierazpen instituzionala onartu dute udaleko alderdi politikoek. Alde batetik, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuak diruz lagunduko dituztela erabaki dute. Bestetik, hainbat eskaera egin dizkiote Espainiako Gobernuari, Sahara kolonizatu zuenez, egoeraren arduradun dela uste dutelako. Hain zuzen ere, deskolonizazio prozesuari amaiera emateko exijitu dio Durangoko Udalak.

Horretaz gainera, Nazio Batuek finkatutako doktrina babestea eta Sahararen erreferendumerako eskumena sustatzea ere eskatu diote udal arduradunek Espainiako Gobernuari.

Andaluzia Eguna ospatuko dute bihar, anaitasun afari batez

DURANGO M.O.

Andaluzia Eguna ospatuko dute bihar, Durangon, herriko andaluziarren kultur elkarteak antolatuta. Lehenengo, dantza saioa egingo dute San Agustin kulturgunean, 18:00etatik au-

rrera. Gero, 21:30ean, Gran Hotel Durangon batuko dira jaiari segida emateko, eta anaitasun afaria egingo dute bertan.

Biharkoa ez da andaluziarrek euren jaia ospatzeko antolatu duten ekitaldi bakarra. Izan ere, joan zen zapatuan, ardo dastaketa egin zuten, Oheren Ardoa izeneko ekitaldiaren harira. Aitziber Irigoras alkatea eta udaleko beste ordezkari batzuk ere hurreratu ziren ekitaldira.

Azoka solidarioa egin dute bigarren Udal Euskaltegian

DURANGO M.O.

Iaz arrakasta eduki zuela-eta, aurreko berriro antolatu dute azoka solidarioa Udal Euskaltegian. Erabiltzen ez diren objektuak berrerrabiltzea eta beharrezkoak direnei laguntzea

dute helburu. Arropa, jostailuak, liburuak... Denetariko gaiak eraman zituzten azokara euskaltegiko ikasleek eta beharginek. Horrela, 262 euro atera dituzte salmentatik, eta diru horregaz janaria erosi dute. JAED elkarteari dohaintzan eskaini diote jateko sorta, arazo ekonomikoekin dabiltzan pertsonen eta familiei emateko.

Gainera, soberan geratutako gauzak Munduko Arrozak jaialdian salduko dituzte.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko martxoaren 6a,
13. urtea - 580. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Martinez de Arenaza
Yarza, Amaia Huarde Basabe.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña,
Martxel Zubia Arrinda,
Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hasi da tren geltoki zaharreko garaje eta tailerrak botatzeko obra

Datorren astean ekingo diete lehengo trenbidearen azpiegitura kentzeko lanei

DURANGO Markel Onaindia Urte bi baino gehiago pasatu behar izan dira trenbidearen lurperatzearen ondorioz funtzio barik geratu ziren geltoki zaharreko instalazioak kentzen hasteko. Eusko Jaurlaritzak irailean lizitatutako proiektua martxan dago; garajeak eta tailerrak botatzeko obra hasi da, eta datorren astean ekingo diete trenbidearen azpiegitura kentzeko lanei. 835.000 euro erabiliko dituzte obra garatzeko, eta Murias eta Tecsa enpresek dute lanen ardura. Bost hilabete barru, espazio guzti hori libre geratuko da; 62.000 metro karratuko eremu erabilgarria irabaziko du Durangok.

Duela egun gutxi hasi ziren beharginak kotxe-tokien eta ga-

rajeen txapa metalikoak eta es-talkiak kentzen. Aste honetan, oster, tailerretako hormigoia botatzen ibili dira hondeama-kinak. Hain justu ere, eguaz-tenean obrak bisitatu zituzten

Espazio guzti hori libre geratuko da: 62.000 metro karratuko eremu erabilgarria izango da

Ana Oregi sailburuak, Antonio Aiz sailburordeak eta Aitziber Irigoras alkateak. Egitasmoak Durangori aukera gehiago eka-rriko dizkiola azpimarratu zuen alkateak: "Kotxe-tokiak erais-tea, Durangon bizitzen gabil-

tzan aldaketaren eta etorkizuna-ren sinboloa da".

Oregik gogoratu zuen, tren lurperatu ostean, eraisketa *Durango Operazioaren* barruko beste pauso bat dela. Hurrengo pausoa izango da libre geratzen den espazioan zer egin erabaki-tzea. Aisialdi gunerako 37.000 metro karratu daude, eta skate gunea, anfiteatroa eta parkea egitea proposatu zuten Bilduk eta Aralarrek.

Bestalde, hasieran aurreiku-sitako Euskotrenen egoitza eta eliza ez dira egingo, eta ikusteko dago zer gertatuko den luxuzko bost etxe dorreekin. Bestalde, ikasleekin egindako partaidetza prozesu batean, trenbidearen trazatuan parke lineal bat sor-tzea erabaki zuten.



Aiz, Oregi eta Irigoras, eguaztenean, instalazioetan.

Zapatuko eraso sexista salatu dute mobilizazioan

Zapatuan, eraso sexista jazo zen 40 Minutu Rock-en



Eguaztenean, Ezkurdin egindako mobilizazioa.

DURANGO M.O. Joan zen zapatuan eraso se-xista bat gertatu zen Landako Gunean antolatutako 40 Mi-nutu Rock jaialdian. Neska erasotak ipini zuen salaketa Ertzaintzan, eta kontatu zuen mutil bat ukitzen ibili zitzaiola. Ikerketa zabaldu zuten ertzai-nek, baina oraindik ez dute inor atxilotu. Erasoa salatze-ko mobilizazio bateratu batera deitu zuten eguaztenerako Bilgune Feministak eta jaialdiko anto-lakuntzak, eta 80 bat lagunek parte hartu zuten.

Bai 40 Minutu Rocken, bai bestelako jaialdi handietan, era-

so sexistak aurreikusteko lan-keta garrantzitsua dela adierazi dute elkarte biek, mobilizazioa deitzeko bidalitako oharrean. Zapaturako protokolo bat ze-goela azaldu dute, baina ez zela nahikoa izan. "Argi geratu zen eraso sexisten aurkako proto-koloa izatea ez dela nahikoa era-soak saihesteko. Ezinbestean, espazio honetan parte hartzen dugun guztion erantzukizuna da". Era aktiboan zein pasiboan eraso babesten duen oro eraso-tzaile bihurtzen dela uste dute.

Udalak ere eraso salatu, eta eraso jasan zuen neska babestu du.

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko bada.

erronkarako #prest

Aner Urruzuno,
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza,
2. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MARTXOAK 14
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · APIRILAK 16
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 14
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MARTXOAK 28
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 21
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

209 lagunek parte hartu dute Behargintzako ikastaroetan

Txakartegi: “Jendea lan bilaketa prozesuan asko laguntzen diote”



Augusto Uriarte eta Aitziber Txakartegi Behargintzako odeskariak, eta Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea.

DURANGALDEA M. Onaindia 2014an, 209 lagunek parte hartu zuten Behargintzako eskaintako prestakuntza ikastaroetan, eta beste 128k informazioa jaso zuten zerbitzuan. Iazko jardueraren balantzea egiteko prentsaurrekoa eman zuten eguazteen Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea, eta Aitziber Txakartegi eta Augusto Uriarte Behargintzako ordezkariak.

Txakartegik ikastaroen balioaz berba egin zuen: “Jendea, lana bilatzeko prozesuan,

asko laguntzen diote”. Datu zehatzei begiratuta, ikastaroak hiru arlotan banatuta eskaini zituzten. Batetik, langabetuen izateko ikastaroa, eta pertsonak zein zamak mugitzeko makineria erabiltzen ikasteko. Bigarrenik, gaitasun orokorrak hobetzeko hamar ikastaro eman zituzten; lan elkarrizketak prestatzen eta curriculumak egiten ikasi zuten, besteak beste. Hirugarrenik, 55 urtetik gorakoek ikastaro bitan parte hartu ahal izan zuten, gizarte

haien parte-hartze aktiboa bultzatzeko helburuagaz.

Txakartegik kontatu zuenez, partaideen %56 emakumeak izan ziren, %36 29 urtetik beherakoak, eta %38k atzerriko naziotasuna zeukaten.

Orientazio zerbitzua

Bestalde, irailaren 30era bitartean lanerako orientazio zerbitzua eskainiko du Behargintzak, Lanbidegaz lankidetzak hitzarmena sinatu eta gero. 1.500 orduko zerbitzua izango da, lanbakoei zuzendua.

Auzokoen ustez, eskolaren auzia saihestu zitekeen

ATXONDO J. Derteano

EAEko Auzitegi Nagusiak eskola eraisteko epaia eman zuen otsailean; udalaren eta auzotar batzuen arteko auzian, azken horiei eman zien arrazoi. Udalak eraisketa eragozteko pausoak ematen dabilen bitartean, Euskalerrria blokeko hamabi etxebizitzetako bizilagunak zain daude: “Oraindik ez gara abokatuagaz batzartu. Ikusiko dugu egoera zelan garatzen den, eta gero erabakiko dugu zer egin”, adierazi du Jesus Mari

Arana blokeko administratzaileak. Edozelan ere, auzotarrek egoeraren balorazio “triste” egiten dute; adierazi dutenez, “ez zegoen gaur egungo egoerara heldu beharrik”. Eskola egiteko proiektu bi zeuden sasoiaren euren etxebizitza bloketik “hurrunen zegoena aukeratzeko” eskatu zioten udalari. Egoera bideratzeko “denbora egon da aurretik”, adierazi du Aranak.

Azkenik, argitu gura izan du blokean bizi diren auzotarrak ez daudela eskola egitearen aurka: “Herrian zabaldu da ez dugula eskola egiterik nahi, eta hori gezurra da. Hori sekula ez da egia izan. Eraikina gorago egitea baino ez dugu eskatu”.

Urteko batzarra egingo dute jubilatuek

IZURTZA J.D.

Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du martxoaren 19an, eguna, San Jose egunean. Urtero legez, goizeko mezaren ostean batuko dira. Aurten 27 bazkide daude deituta kontuak onartzeko batzarrerara, iaz baino bi gutxiago. Ez dute espero batzar luzerik. Izan ere, iaz zu-

zendaritza urte birako berritu zuten, eta, beraz, 2015. urteko gorabehera iazko talde berak egingo die aurre. Urteko kontuak “orekatuta” dituztela adierazi du Karmelo Irastorza elkarteko presidentea.

Izurtzako Udaleko eta Bizkaiako Foru Aldundiko diru-laguntzetatik eta bazkideen kuotetatik lortzen dutenagaz nahiko izan dute gastuei aurre egiteko. Aurtengo berrikuntza nagusia izan da lokalean, gimnasia eskolak eroso hartzeko, zoruan ipini duten tatamia.

Semaforoa ipiniko dute San Agustinen

Botoia sakatzean, semaforoa gorri ipiniko da



San Agustinen, errepidean dagoen zebra bidea.

ELORRIO M.O.

Atzo hasi ziren San Agustín auzoan semaforoa ipintzeko lanak. Joseba Mujika alkateordeak prentsa oharrean adierazi duenez, iazko udazkenean izandako istripuaren ostean –pertsona bat hil zen auto batek harapatuta–, bertan semaforo bat ezartzea eskatu zioten Aldundiari. Izan ere, Aldundia da BI-3331 errepidearen kudeatzailea. Erakunde biak akordio batera heldu ziren, eta semaforoa ipintzeko egitasmoa martxan dago.

Aurrerantzean, oinezkoek botoia sakatzean, semaforoa gorri ipiniko da. Gainera, biribilgunearen eta pasagunearen artean 60 km/h-ra murriztuko dute abiadura.

Euskararen erabilera indartzeko ideiak batzen

IURRETA Amaia Ugalde

Iurretan euskararen aldeko sentsibilizazio kanpaina bat diseinatzeko lehen batzarra egin zuten martitzenean. Udalak aurreikusita dituen ekimenei errepasoa egin, beste herri batzuetako sentsibilizazio kanpainak aztertu, eta Iurretarako ideiak batu zituzten.

Elhuyar Aholkularitzak bideratutako batzarrean, hainbat ideia batu zituzten; esaterako, herriko nagusien berbaera jasotzea eta zabaltzea, gazteentzako lehiaketak egitea, merkataritza

arloan kanpaina indartzea, guraso atzeritarrekin sentsibilizazioa lantzea, eta gazte hizkerako gaztelaniazko esaldiak euskaratzea eta zabaltzea.

Iaz arte, udaleko Euskara Planari jarraipena egiteko talde bat egon da, eta, sentsibilizazio kanpaina diseinatzeko, taldea zabaltzea adostu zuten. Martitzeneko batzarrean hamabost lagun batu ziren; ikastetxeetako ordezkariak, elkarteetakoak, udalekoak eta herritar norbanakoak. Hurrengo batzarra Aste Santu ostean egingo dute.

Kaixo! Ireland

Uda Irlandan gozatu
Irlandako familia batekin
ingelesa ikasten

Jar zaitez gurekin harremanetan!

www.kaixoireland.com

3aste 1400€

HAURDUNALDIK- JAI OBERRIK- UMEAK- FAMILIAK- JAUNARTZEAK- EZKONTZAK

Kids & Kliks
argazkiak

Zengotitabengoa 1 (Berriz)
TFNO: 635 75 86 73

WWW.KIDSANDKLIK.COM
info@kidsandkliks.com

BIZKAIA LANEAN



2015 LANAK



Zornotzan lehen urteurrena erronka berriekin ospatuko du ANBOTOk

Zornotzako harpidetza kopurua handitzeko ‘1.000 baietz’ kanpaina abiatuko du



Gaur egun, 500 zornotzarrek jasotzen dute ANBOTO etxeko postontzian.

ZORNOTZA J. Derteano
Urtebete joan da ANBOTO proiektu komunikatiboa Zornotzara zabaldu zenetik. Harrezkero, 500 zornotzarrek barikuro jasotzen dute astekaria etxeko postontzian; herriko egunero-koaren berri jakin gura duenak ere hor dauka eskura webgunea: www.anboto.org.

ANBOTOk zuzendaria den Jone Guenetxearen esanetan, “orain arte egindako bidea positiboa bada ere, erronka berriei aurre egiteko prestatzen gabilta”. ANBOTOk harpidetza kanpaina bat hasiko du Zornotzan *1.000 baietz* leloagaz. Izan ere, aurtun 1.000 harpidedun izatera heltzea da helburua.

Horretarako, hainbat bide jorratuko ditu. Esaterako, urtean, herrian egiten diren askotariko ekimenekin bat egin, eta harpidetza kanpainak gauzatuko ditu. ANBOTO etxean jasotzea doakoa da. Eskabidea anboto@anboto.org helbide elektronikoaren bidez egin daiteke, baita 946816558 zenbakira deituta ere.

Musika eskola berria egiteko ideia lehiaketa abiatu du udalak

ZORNOTZA J.D.
Gaur egun osasun zentroa dagoen eraikina hutsik geratuko da, Kaitana inguruan egiten dabiltzana inauguratzen denean. Eraikin hori eraitsi, eta zoru horretan musika eskola berria egin gura du udalak. Zer eta zelan egin erabakitze-ko, ideia lehiaketa abiatu du. Hautagaiek sei asteko epea dute euren proposamenak helarazteko.

Europa osora ireki dute lehiaketa, eta hiru sari banatuko dituzte; 12.000, 6.000 eta 3.000 euroko bana. Irabazleak, diruaz gainera, askoz sari garrantzitsuagoa eskuratuko du: proiektua idazteko eta zuzentzeko ardura izango du.

Hutsik geratuko den eraikina Txiki Otaegi kalearen sarreran dago, Zelaieta zentroari eta pilotalekuari lotuta. Eraikina zer ezaugarri bete beharko dituen azaldu du Amagoia Madariaga zinegotziak. Batetik, Zelaieta zentroagaz harmonian joan behar du; izan ere, gaur egun dagoena “ez dator bat bere inguruagaz”. Bestetik, Txiki Otaegi kaleari balio erantsia eman behar dio: “Gaur egungo eraikina hesi arkitektoniko bat da kalearentzat”. Eraikin berriak “argitasun eta protagonismo gehiago eman beharko dio Txiki Otaegi kaleari”.

Aldi baterako 16 langile kontratatuko ditu udalak

Aurtengo enplegu planean jasotako ekintza bat da

ZORNOTZA J. Derteano
Azken udalbatzarrean, 2015erako Enplegurako Osoko Plana onartu zuten aho batez. Aurtengo zenbatekoa 397.740 eurokoa izango da. Enplegua sustatzeko bide bi jorratuko dituzte. Bate-rik, udalak zuzenean hamasei zornotzar kontratatuko ditu aldi baterako. Espazio publikoen edo gune berdeen mantentze-lanak, eta gizarte-ari eta erabilerak publikoari lotutako lanak egingo dituzte. Beharra lortze-

ko honako baldintza hauek bete behar dira: langabetua izatea eta bost urtez jarraian Zornotzan erroldatua egotea, edo epealdi hori azken hamabost urteetan beteta izatea. Hautagaien eskaera Lanbiden egingo dute. Gainera, Zornotzan kokatutako enpresei bideratutako diru-laguntzak daude. Enpresek laguntzak jaso ditzakete zornotzarrek kontratatzeagatik zein behin-behineko kontratuak mugagabe bihurtzeagatik.

Ireki dute Betarraganeko aparkalekua, 42 plazagaz

Eguneko 24 orduetan egongo da zabalik

ZORNOTZA J.D.
Eguenetik irekita dago Betarraganeko aparkaleku berria, 42 plazagaz. El Carmelo ikastetxearen eta Kalbario hotelaren artean kokatuta dago.

Horrela, iaiztik hona hiru aparkaleku berri daude Zornotzan: Ixer auzokoa, Nafarroa zentrokoa eta Betarraganekoa. Lehenengo biek alderatuz gero, Betarraganekoaren berezitasuna da ez dagoela sartu-irtenak kontrolatzeko sistemarik; hau da, aparkaleku irekia da, 24 orduetan zabalik dago, eta hiru orduz baino denbora luzeagoan

utzi daiteke ibilgailua. Aurreikusitakoa baino aste bi lehena go amaitu dituzte lanak. David Latxaga alkateak aparkalekuaren kokapena azpimarratu du: “Erdigunetik gertu dago. Adibidez, ikastetxea, hotela, Zornotza Aretoa eta etxebizitza berriak ditu inguruan”.

Aparkalekutik Kalbario plazara oinezkoentzako pasabide bat egin gura zuen udalak, baina ezin izan du. Pasabidea El Carmelo ikastetxeko lurretatik bideratzeko asmoa zuen, baina ez du lur horiek erabiltzeko akordiorik lortu ikastetxeagaz.

ANBOTO baliagarri zaizu herriko zein eskualdeko gertakarien berri jakiteko?




Jon Ander Batiz

“Nik irakurtzen dut ANBOTO, eta, bai, baliagarri zait Zornotzako kontuen berri jakiteko. Kirolaria naiz, eta, batez ere, kirol arloko albisteak irakurtzen ditut; baina, oro har, ale osoari ematen diot begirada bat. Urtebete joan da ANBOTO Zornotzan dagoenetik, eta ea beste urte askoan jarraitzen duen”.



Yolanda Soler

“Ikastolan ikasi nuen, eta badakit euskaraz, baina ez dut modurik guraso edo lagunekin erabiltzeko. Beraz, ANBOTO tresna baliagarria zait euskaraz irakurtzeko, eta uste dut euskaldun berrientzat ere horrela dela. Zornotzan bizi naizen arren, izurtzarra naiz, eta hango berri jakiteko ere erabiltzen dut”.



Dabid Larrucea

“Besteak beste, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian dauden kontzertuen berri jakiteko erabiltzen dut ANBOTO. Noizean behin joaten naiz Platerueneko kontzertuetara, ANBOTOn elkarriketa edo albistea irakurri ostean. Eskualdeko beste herrietan zer gertatzen den jakiteko ere baliagarria da”.

Kristalezko hezurren aurka berunezko elkartasuna

‘Kristalezko hezurak’ izenez ezagutzen den gaixotasuna dutenen aldeko gala egingo dute bihar



2013ko abenduko ekitaldiko irudia. La Otra Mirada

ZORNOTZA J.D.
La Otra Mirada gobernuz kanpoko erakundeak ongintza gala antolatu du zaturako, 20:30ean, Zornotza Aretoan. Durangaldeko hainbat musikari batuko ditu ekitaldiak.

Batutako diruaren zati bat Mongoliako gazte biri laguntzeko erabiliko dute. Beste zatia Stop San Filippo fundazioari emango diote.

Bederatzi musikariren abestiak entzun ahalgo dira. Horietako bat galiziarra da (Kiko Raimundez) eta gainerakoak Durangaldean bizi dira: Alex García, Usue Martínez, Idoia Bediaga, Jon Montero, Martzel Vargas, Maider Legarreta, Pedro Lanus eta Jugatx Astorkia. Sarrerak 7,5 euro balio du.

Mongolian hainbat proiektu ditu La Otra Miradak. Batutako dirua, batez ere, *kristalezko hezurak* izenez ezagutzen den osteogenesi imperfektua gaixotasuna duten Mongoliako haur biri laguntzera bideratuko dute. La Otra Miradako Susana Lorenzoren esanetan, ezagutu zituztenean, “etxetik sekula irten barik” zeuden. Harrezkero, janaria eta D bitamina ordaintzen dizkie gobernuz kanpoko erakundeak. Horren ondorioz, iaz eskolara joatea lortu zuten. Ebakuntza bat dago umeen bizitza kalitatea hobetu ahal izateko, eta ahaleginetan dabilta hori gauzatu ahal izateko. Era berean, eraikin zahar bat eguneko zentro bihurtu gura dute urritasunen bat dutenentzat.

1982tik

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21





DURANGO
Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 946 813 485
60 m²-ko biltegia
100 m²-ko erakusketa



ARRASATE
Kataide Indust., pab. 3
Tel.: 943 771 352
650 m²-ko biltegia
200 m²-ko erakusketa



SIEMENS AEG ARISTON Balay BOSCH Vaillant Electrolux LG Miele Panasonic SAMSUNG Saunier Duval Whirlpool

Etxetresna elektrikoetan, %20ko deskontua gutxienez PSParen gainean



ZANUSSI
ZWHB6103PS
GARBIGAILUA
470€ -%36
299€

285€ kupoiarekin



AEG
L68276FL
GARBIGAILUA
570€ -%34
375€

355€ kupoiarekin



BOSCH
WAQ24468ES
GARBIGAILUA
655€ -%31
450€

430€ kupoiarekin



ARISTON
EGIS
FF24NOX
1.350€

Ziurtagiri guztiekin
instalatuko dizugu

%5 eko deskontua gehitu etxetresna elektrikoetan
Durangoko dendan kupoi hau erakutsiz gero
2015eko uztailera arte

ALMACENES ARRASATE

Euskal jaian umeak etxeetan hartzeko deia egin du udalak

GARAI M.O.

Dantza oinarri duen umeen euskal jaia ospatuko dute Garain, ekainaren 14an, udalak eta Trumoitte kultur elkarteak elkarlanean antolatuta. Jaialdiaren prestaketekin dabilta, eta egunean bertan umeak etxeetan hartzeko deia egin du udalak. Martxoaren 31n amaituko da apuntatzeko epea.

Horrelako jaietan ohitura izaten da kanpotik datozen umeek herriko etxeetan bazkaltzea, eta antolatzaileek jakin gura dute zenbat herritar dauden horretarako prest, horren arabera, zenbat dantza talde gonbidatu zehazteko.

Oraindik guztiz diseinatu barik dago euskal jaiaren egitaraua, baina antolatzaileek aurreratu dute ume dantzarien alarde bat eta erromeria bat izango dituztela, gutxienez.

Psikiatrikoko lursailaren zati bat berdegune izango da aurrerantzean

Joan zen egunean onarturiko udal aurrekontuko inbertsiorik handiena da



4.600 metro koadroko lursaila herriaren erabilerarako lagako du Jaurilaritzak.

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Bi urte daramatza Zaldibarko Udalak lursail horren erabilera publikoaren inguruko negoziazioetan Osakidetzagaz. Era-kunde bien arteko hitzarmena oraindik sinatu barik dagoen arren, ospitale psikiatrikoko 4.600 metro koadroko lursail

bat 30 urterako herriaren erabilerarako uzteko konpromisoa hartu du Osakidetzak. Horrela, Euskal Herria eta Olazar kaleen gurutzebidetik autobus geltokiraino izango dute berdegunea erabilgarri herritarrek.

Bestalde, horma lekualdatu eta gero, psikiatrikoko eremu-

tik kanpo utziko dituzte ospitaleko kapera eta *Bi ahizpena* izenez ezaguna den eraikina. 2.800.000 eurokoa den aurrekontuko inbertsio nagusia da psikiatrikoko horma zatia bota, eta berriro altxatzea. Joan zen egunean, Bilduko zinegotzien botoekin onartu zuten 2015. urterako Zaldibarko Udalaren aurrekontua. PSE-EEko eta PPko ordezkariak abstenitu egin ziren, eta kontra egin zuen EAJk.

Sanjuangoa-Elexpe

Herriko eraikinik zaharrena den Sanjuangoa-Elexperen egitura konpontzeko lanetarako ere egingo du inbertsioa Zaldibarko Udalak, aurtan. Eraikin horren egiturazko konponketa egingo dute (teilatua eta habeak konponduko dituzte, esaterako) 60.000 euro inbertituta.

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP



Durango Operazioa

Hamarkada bat geroago, Durango Operazioa itxura hartzen dabilela dirudi. Heda-bideek zabaldutako azken informazioen arabera, trenak okupatutako lurrak berreskuratuko ditu herriak apirilerako, kotxe-toki zaharrak, trenbideen eremua eta Euskal Tren Bidearen bulego zaharrak eraitsi ostean.

Trenbidea lurperatzea lehentasunezko proiektu bihurtu da durangarrontzat, eta obren programa, orokorrean, ez da hobekuntza urbanistikoko soil bat; horretaz gainera, herritarren bizi-baldintzen hobekuntza eragingo du, ez dituztelako barrerak saihestu behar izango herri-tik ibiltzeko.

Kohesioa. Hori da berba. Espero dezagun albiste on hori, hau da, datozen egunetan lanei ekingo dietela dioen albiste, ez dadila izan kanpainaurre betean zabaldutako albiste soil bat. Atzerapen asko onartu da orain arte, eta herritarrek ez lukete ulertuko berriz ere datekin aurrera eta atzera ibiltzea. Seriotasuna behar da.

Trenbide zaharraren eraistea luzatu egingo dela dirudien arren, espero dezagun eraiste-lana arrakastatsua izatea, eta, are garrantzitsua goa dena, libre geratuko den eremu zabala inguru onera ekartzeko balio dezala. Aukeren sasoia da, eta ezin diegu alde egiten utzi. Itxura aldaketa soil bat baino zerbait gehiago merezi du Durangok, eta herritarren pazientzia mugagabeak saritua izan behar du.

**Erredakzioan itzulia*

Farmazialariek etxez etxeko laguntzan parte hartuko dute

BERRIZ Amaia Ugalde

Etxean lehen mailako arreta zerbitzua jasotzen dute hoge berrihtar inguruk. Mendekotasuna duten pertsona horien zaintzan laguntzeko, farmazialarien elkargoagaz hitzarmena sinatu du udalak. Hemendik aurrera, farmaziako langileek pertsona horien historiala izango dute, eta elkarlanean jardungo dute etxez etxeko laguntzaileekin, tratamenduen jarraipena egiteko, besteak beste.

Bestalde, 80 urte baino gehiagoko berriztarrentzat estimulazio tailerrak eskainiko ditu udalak apiriletik ekainera. Martxoan eman daiteke izena, udaletxera joanda.

Martxan dago udalak antolatutako argazki lehiaketa

MAÑARIA M.O.

Astelehenean martxan ipini zuten aurtengo argazki lehiaketa. Hilaren 27ra arte egongo da lanak aurkezteko aukera, eta *Natura Mañarian* izango da gaia. Sari bi egongo dira. Batetik, 100 euroko balioa duen txartel bat jasoko du 12 eta 17 urte bitarteko irabazleak. Bestetik, 200 euro emango dizkiote 18 urtetik gorako irabazleak.

Lanak entregatu ostean, erakusketan ipiniko ditu udalak apirilaren 13tik 30era. Gero, maiatzan izango den kultura astean jakinaraziko dituzte irabazleen izenak. Hain zuzen ere, maiatzaren 17an egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Plazako zorua estaltzeko lanak esleitu dituzte

Uztaileko Santa Maña jaietarako prest egon dadin, lehenbailehen esleitu gura dituzte lanak

OTXANDIO Joseba Derteano

Amaitu dituzte plazako arkeologia lanak, eta dokumentatu dute hango ondarea. Orain, plaza-aren eraberritzeagaz jarraitu dezake udalak. Hurrengo pausoa plazako zorua berrizteko lanak esleitzea izango da. Lan horiek jasotzen dituen baldintza orria joan zen eguneko udalbatzarrean onartu zuten aho batez.

Zoruko ondare arkeologikoak estali ondoren, gainaldean hormigoia bota eta harlauzak ipiniko dituzte, besteak beste. Obra osoaren aurrekontua 122.000 eurokoa da. Sei enpresari-hiru herriko eta hiru kanpoko-egin diete aurrekontuak aurkezteko proposamena.

Lanak uztail hasieran amaitzea aurreikusita dago. Uztailearen erdian Santa Maña jaiak hasiko dituzte. Horregatik, esleipena ahalik arinen egin gura dute. Horretaz gainera, enpresei obretako epeen egutegi bat zehazteko eskatuko die udalak. Horrela, lanen gertuko jarraipena egin ahal izango dute.

Batzarra igerilekuari buruz

Bestalde, udalak batzar informatibora deitu du, igerilekuen esleipen prozedura azaltzeko eta interesa izan dezaketen herritarren zalantzak argitzeko. Batzar hori datorren astelehenean izango da, 18:30ean, udalbatzar aretoan.

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel.: /Faxa: 946 215 404

hitz liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
AZKEN TXORAKIKERIAK
Kike Amonarriz (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT
AGUR, AGURI!
Castillo Suarez (2015)

MUSIKA
EUSKAL PRIMATE SCHOOL
La Hora del Primate (2014)

Herriko ikasleei zuzenduriko ipuin lehiaketa

▣ **ABADIÑO** I.E.

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik Bigarren Hezkuntzako laugarren mailara arteko umeei zuzenduriko ipuin lehiaketa antolatu du Abadiñoko Udalak. Ikasleen artean idazteko eta istorioak kontatzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz antolatu dute. Beste herri batzuetan ikasi arren, Abadiñon erroldatuta dauden guztiek parte hartu dezakete lehiaketan. Kontakizunetan landu beharreko gaia askea da, eta lanek 100 berba izan behar dituzte gutxienez. Maiatzaren 14ra arte, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan aurkeztu daitezke idatziak.

Bideoforuma, emakume historikoei buruz

▣ **MALLABIA** Jone Guenetxea Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, Mallabiko Nahikari emakume elkarteak udalagaz batera *Gu bezalako emakumeak, emakume historikoak* bideoforuma antolatu du martxoaren 8rako, arratsaldeko 17:00etan, kultur etxean.

Ekitaldiaren antolatzaileek aurreratu dute bideoforumaren helburua Simone Beauvoiren, Frida Kalhoren, Clara Campoamorren eta María de Maezturen bizitzari buruz hausnartzea dela.



‘Zurekin hobeto’, Elorrioko EH Bilduren prozesua

▣ **M24** Markel Onaindia°

Elorrioko EH Bilduk partaidetza prozesuan parte hartzera deitu ditu herritarrek. Astelehenetik aurrera gaien arabera batzarrak egingo dituzte. Martxoaren 25ean, jardunaldi zabala egingo dute, eta, apirilean, programan sakonduko dute, taldeka. Bestalde, Errekakalen lokala zabaldu dute.



EH Bilduko kideak, gaur inauguratuko den lokalean.

Zornotzan hauteskunde talde bat eratzen dabilta

▣ **M24** J.D.

Hauteskunde talde bat egituratzen dabilta Zornotzan. Ezker Anitzak, Equok eta Alternatiba Republicanak Irabazi-Ganemos izenagaz Euskal Herri mailan adostutako koalizioan du sorburua. Ezker Anitzaren eta Equoren ekimenari esker, hainbat herritar batu ziren urtarrilaren 19ko lehen batzarrera, tartean Zornotzako Podemos Ahal Dugu taldekoak. Ondoren, otsailaren 2ko lehen batzar irekian bultzatzaileek protagonismoa eta ekimena herritarren esku uztea erabaki zuten, eta hauteskunde talde bat aurkeztuko zutela adostu zuten gehiengoz. Orain, herritarrek dabilta hauteskunde taldearen programa eta egitura erabakitzen. Hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko 500 sinadura batu behar dituzte. Kopuru horretara heltzen badira, primarioen bidez erabakiko dute hauteskundeetara aurkeztuko diren lagunen zerrenda nortzuek osatuko duten.

Podemosen hauteskunde plataforma, Durangon

▣ **M24** M.O.

Podemos Ahal Dugu alderdia ez da bere markagaz aurkeztuko udal hauteskundeetara, baina alderdikideek plataforma lokalak sortzeko aukera dute. Herri askotan dabilta hori aztertzen, eta, Durangon, zapatuan egin zuten batzarra. Julián Ríos Durangoko Ahal Duguko idazkariak azaldu du 30 bat lagunek parte hartu zutela. Momentuz ez dute plataformarentzako izenik zehaztu, eta zerrenda hauteskunde primario zabalekin erabakiko dute.

Riosen arabera, hurrengo batzarretan lantaldeak eta kronogramak osatuko dituzte. Gainera, hauteskundeetarako programa herritarrekin eta elkarteekin elkarlanean landu gura dute. Batzarretara joatera gonbidatu dituzte, eta, bestela, *durangosemueva@gmail.com* helbide elektronikora ekarpena bidaltzeko aukera eskaini dute.

Omnia taldea aurkeztu zuten barikuan, Zaldibarren

▣ **M24** Itsaso Esteban

Joan zen barikuan aurkeztu zuten Omnia auzokideen elkarte, Zaldibarren. Miguel Angel Villanueva elkartearen bultzatzaile taldeko kidea eta EAEko hainbat herritako talde independenteak biltzen dituen Ikune elkarte ordezkariek batu ziren ekitaldian. Kideek esan dute Zaldibarko politikagintzan parte-hartzea bultzatzea dutela helburu nagusietako bat.



Hogei lagun inguru bildu ziren aurkezpenean.

> **DURANGALDEA ASTEON**

Nagusientzat bisita kulturalak

ZORNOTZA > Nagusi Aretoak herriko nagusiei zuzendutako bisita kulturalak antolatuko ditu Bilboko Alondegira eta EITBra adibidez. Oharrean dioetenez, hilero bisita bat egingo dute. Bisiten programa osatzeko, batzar zabal batera deitu dute martitzenerako. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da, Nagusi Aretoan bertan.

Gazte Topaketak egingo dituzte

ABADIÑO > Martxoaren 13tik 15era, Durangaldeko Gazte Topaketak egingo dituzte Abadiñon, gazte mugimenduan lanean dabilten hainbat eragilek deituta. Hurrengo tabernetan eman ahal da izena: Abadiñoko Abarketeruena, Durangoko Intxaurre, Elorrioko Portalekua, Zaldibarko Castet eta Zornotzako Belatxikieta.

376.335 zenbakiak irabazi du iPada

DURANGO > *Salerosketak be euskeraz* egitasmokoek zozkatu dute hamabosgarren iPada, eta 376.335 zenbakidun txartela daukanak eskuratuko du. Orratz arropa konponketen dendan eman zuten txartela. 382.442 da ordezeko zenbakia, Agirrezabal etxetresna elektrikoaren dendan emandakoa.

Udala, Euskotren eta Galizia plazaren inguruak

Denbora asko igaro da dagoeneko Euskotrenek Matiena eta Durango lotzen dituen trenbidea lurperatu zuenetik. Hasieratik, itxitura metalikoak jarri ziren, obrek inguruko bizilagunei ahalik eta kalte gutxien eragiteko, baina, lanak aspaldi bukatu ziren arren, itxiturek bere horretan jarraitzen dute. Gobernu taldeak ez zuen aurreikusitako obrak bukatu osterako lehengoratzeko proiektu bat, eta bizilagunak ondorioak pairatzen ari dira.

Lehengoratzeko hori Euskotrenen erantzukizuna da, baina udalak kontuan hartuta eduki behar zuen lehengoratzeko zein baldintzatan egin behar zen (epeak...), eta Euskotreni hori egitea exijitu, eta jarraipena egin behar zion.

Alkateak ez zituen bere ardurak bete, eta, auzotarren ezinegonari erantzun nahian, zin egin zien iazko irailerako proiektua martxan egongo zela. Ez zen ho-

rrela izan, eta EH Bildutik, udalbatzarretan eta hirigintza batzordeetan behin eta berriz galdetu diogun arren, gaur gaurkoz, ez dago ezer zehaztuta egite faserako.

Euskotrenek proiektua idazteko aurrekontua besterik ez du aurkeztu, ez du aurrekonturik aurreikusi, ordea, proiektu hori gauzatu, eta arazoari irtenbidea emateko. Hala ere, Euskotrenekin horren gaineko inolako akordiorik eta zehaztapenik egon ez arren, udal gobernua saldu nahian dabil arazoari behin betiko irtenbidea emango dion proiektu bat badela. Gainera, udalaren kargu dagoen Galizia plaza urbanizatzeko probestuko duela dio, ez duenean horretarako proiekturik ezta aurrekontu propiorik aurkeztu.

Sasoia da, udalak behingoz betetzen ez dituen promesak egin ordez, bere ardurak bete, eta auzotarrei merezitako behin betiko irtenbidea emateko.

Emakumeon kontrako indarkeriaren aurka!

Pasa den larunbatean, hilak 28, 40 Minutu Rock jaialdian, eraso sexista bat gertatu zen. Hori salatze, jaialdiko antolatzaileak eta Durangoko Bilgune Feminista elkartu gara.

Milaka pertsona jai giroan elkartzen diren espazioetan eraso sexistak aurreikustearen garrantzia azpimarratu nahi dugu, horrek suposatzen duen protokoloaren aurrelanketarekin batera.

Joan zen zapatuan argi geratu zen eraso sexisten aurkako protokoloa izatea ez dela nahikoa erasoak saihesteko. Ezinbestean, espazio horietan parte hartzen duten pertsona guztien, antolatzaileen, parte-hartzaileen zein ondotik pasatzen ari den norbanakoaren erantzukizuna da.

Horretarako, berririo gogoratu eta azpimarratu nahi dugu ezinbestekoak direla honako hauek:

-Emakume bat erasotua sentitzen den momentuan bertan, protokoloa martxan jartzea.

-Erasoa babesten duen oro (aktibo zein pasibo) erasotzaile bihurtzen dela gogoratzeko.

-Protokoloak lantzea, eta hori jaietako batzorde, kontzertuen antolatzaile eta horrelako kolektiboaren ardura dela gogoratzeko.

Amaitzeko, ohar bat: puntu hauek kontuan hartu ezean, mugimendu feminista eta harekin bat egiten dugun pertsonak parean izango gara.

Erasorik ez erantzunik gabe!

Ainhua Urrengoetxea Gezala, Maider Muro Larizgoitia eta Ainhua Olaso Sopelana Durangoko Bilgune Feministaren izenean

Aitor Azueta, Saio Zuazubizkar, Hilbai Urrutia, Irakusne Gorospe eta Maria Luisa Larringan (Abadiñoko EH Bildu)



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tariteak barne).

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta iritzien erantzukizunik.

Berbaz

David Santin | Sushi Artists jatetxeko arduraduna

“Sushia arrain gordinagaz lotzen da, baina aukera askoz zabalagoa da”

David Santinek eta bere jatetxeko taldeak ukitu japoniarra emango diote aurtengo Ardo Saltsan azokari



> BERBAZ Jone Guenetxea Zapore japoniarra jarriko diote zapatuan VIII. Durangoko Ardo Saltsan azokari. Erakusketa mahaian, Japoniako gastronomiaren inguruko oinarritzko kontzeptuak azalduko dituzte, eta hainbat elikagai ezagu-

tzeko aukera eskainiko dute. Bilboko Sushi Artists jatetxeko David Santin eta bere taldea tartean izango dira. Era berean, 40 upategi baino gehiagoren produktuak dastatzeko aukera izango da bihar, Landako Gunean. Gainera, delicatessen

produktuen eskaintza zabala izango da: adibidez, iberiar tomatea, berakatz beltza, gazta, antxoak eta ketuak probatu ahaliko dira.

Zer eskainiko duzue Ardo Saltsan azokan?

Sushia eta Japoniako jakiak eskainiko ditugu. 50 lagun ingururentzako bazkari bat ere emango dugu.

Zer menu prestatuko diezu?

Miso sopa, aguakate entsalada, langostinoen tenpura eta hainbat motatako sushia eskainiko ditugu. Plater nagusia Saltsan erara prestatutako atun gorria izango da. Postrea ere Saltsanen esku egongo da.

Zein aurreikuspen duzue Ardo Saltsan azokarako?

Ardo Saltsan azokaren zortzigarren edizioa da, eta badakigu azoka jendetsua izaten dela. Beraz,

gure helburua jendeak gure produktuak ezagutzea da, eta, Durangoko jendeak Bilbon aurkitu ahal gaituen arren, badakigu egunerokotasunerako ez gaudela hain gertu. Hala ere, sushiagaz cateringak antolatzen ditugu; ekitaldietan eta ezkontzetan parte hartzen dugu.

Noiz zabaldu zenituzten Japoniako janaria lantzen duten jatetxeak Bilbon? Zein harrera izan duzue?

Orain dela urtebete zabaldu genituen. Oso pozik gaude izan dugun erantzunagaz. Bilbon ez zegoen janari mota honetako eskaintza handirik. Bartzelonan, esate baterako, aukera handiagoa dago. Gurea kontzeptua berritzailea da. Kalitateko sushia eskaintzen dugu, eta prezio onean. Freskoa da, eta salmenta arina da. Bezeroa hona dator, eta ez du ilara luzerik itxaron behar. Janari freskoa prest dugu, eta

kontsumitzen doazen heinean bandejak jartzen ditugu. Jendeak presa izaten du bazkaltzeko, sarritan lanera itzuli behar delako. Bandaja hartzen dute, bazkaldu, eta joan egiten dira.

Sushia gero eta ezagunagoa da, ala oraindik kosta egiten da Japoniako elikagaiak jendeari ezagutaraztea?

Jende askok sarritan zalantzak izaten ditu arrain gordinagaz, baina sushia ez da hori bakarrik. Aukera askoz zabalagoa da. Gainera, gu eten barik gabiltza berrikuntzan.

Zer produktu berri eskaintzen duzue?

Pernila ere barneratzen hasi gara. Era berean, jende askori ez zaionez arrain gordin gustatzen, beste produktu batzuk ere eskaintzen ditugu. Begetarianoentzako platerak ditugu, esate baterako.

EGITARAUA

MARTXOAREN 7an

GOIZEZ

12:30

Quinta Do Consuelo (albariñoak) dastaketa gidatua

13:30

Show Cocktailing

Jatetxea (japoniarra aukeran)

ARRATSALDEAN

18:00

La Salve garagardoaren aurkezpena

19:00

VI. Ardo Saltsan dastaproba-itsua

EGUN OSOAN

Japoniar sukaldaritza

Nigirizushi

Makizushi

Temaki eta abar

Urdaiazpiko moztea

Ostrak eta ketuak

Beste jarduera batzuk

LANDAKO GUNEAN

Ordutegia

11:00-15:00 // 17:00-21:00



lazio Ardo Saltsan azokako irudi bat.

Ray Fernández | Musikaria | Habana (Kuba), 1971

“Sukaldaritza ikasi nuen: musika jotzen Habanako malekoian hazi nintzen”

Durangoko Plateruenean joko du Fernandezek, bihar

> MUSIKA Itsaso Esteban Zelakoa izaten dabil Euskal Herriko esperientzia?

Ederra! Hotza, klimari dagokionez, baina beroa, topatu dugun laguntasuna aintzat hartuz gero. Oñatin eskaini dugu lehenengo emanaldia, eta, Habanan ezagutzen ditudan euskaldunek apur bat beldurtu ninduten arren, primerakoa izaten dabil esperientzia.

Zer esan zizuten, bada?

Sasoi zailak direla, jende gutxi joaten dela kontzertuetara eta, ni hemen ezezaguna izanda, zaila izango zela jendea erakartzea. Oso zurrinak zaretela, eta gutxi mugitzen zaretela musikagaz... Lehenengo kontzertuan desagertu dira beldur horiek guztiak.

Euskal musikariekin hartu-emanak izan duzu. Tartean, Ruper Ordorika oñatiarragaz.

Bai, eta berak egin zuen Oñatiko kontzertuaren aurkezpena. Habanan, Santa Clara eta Matanzasen zehar bira ederra egin dakoak gara Ruper eta biok.

Cuatro Tanquistas y Un Perro taldeak lagunduta etorri zara Euskal Herrira. Ez ‘tanguista’-k, baizik eta ‘tanquista’-k?

Bai, 1980ko hamarkadan Kuban arrakasta handikoa izan zen

telesail poloniar batetik hartutakoa da izena. Baina, edozelan ere, bidaiatu ahala, taldeari izena aldatzen diogu: Dominikar Errepublikan, esaterako, Los Cuatro Tainos gara. Los Cuatro Tainos y Un Perro. Txakurra lagun beti.

Noiztik zabilzate elkarregaz?

Duela sei urtetik jotzen dugu Miramarko Musikaren Etxean, Quimbombo Que Resbala izeneko elkartearen. Oso harrera ona egiten digute, bai Kuban dauden euskaldunek, bai Euskal Herri- tik bisitan joaten direnek ere.

Zelako doinuak jotzen dituzue Quimbombo Que Resbalan?

Boleroak, sonak... Denetik jotzen dugu. Errepertorio nahiko zabala daukagu, nire kantekin eta beste batzuenekin osatutakoa.

Zure musika ibilbidea zein izan da? Gaztetatik kantatu duzu?

Laguntzen didatenak musikari graduatuak dira, baina ni ez. Nik sukaldaritza ikasi nuen, eta denbora batez sukaldari egin nuen lan. Musikan, Habanako malekoian hasi nintzen. Une batean, El Caiman Barbudo kolektiboagaz egin nuen topo, eta Hermanos Saíz elkartearen ere sartu nintzen. Talentudun gazteei laguntzen die elkarre horrek, eta, ni artean 30 urtetik go-



rako gizona nintzen arren, kide egin nintzen. Hor hasi nintzen, kalean barik, kontzertuetako publikoaren aurrean jotzen.

Malekoian ikasi duzu, beraz, musikari ofizioa.

Bai. Edozein musikarientzat eskola onena da malekoa! Baina, aldi berean, gogorra ere bada. Hala ere, mundu guztia igarotzen da bertatik, beti dago jendea. Denetik gertatu zait bertan: sutsuki txalotu izan naute, baina txistu ere egin izan didate. Sufritu eta gozatu egin dut.

Mezu zuzenak bidaltzen dituzu zure kanta askotan. Zerk bultzatzen zaitu idaztera?

Bizi ditudan eta inguratzen nauden errealitateei buruz abesten dut. *El gerente* izeneko kantak, esaterako, burokraziaren ustelkeriaz dihardu. Maitasunaz eta maitasun ezaz ere kantatzen dut.

Kubako errealitateagaz kritiko zara letra batzuetan.

Badakit ezkerretik egindako kritikek izorratzen dutela gehien ezkerre, baina, egia esan, sekula ez dut pentsatzen dudana esateko arazorik eduki. Telebistan *Entre manos* izeneko programa aurkezten dut, eta hor ikusi ahal izan dut irekitasuna gailentzen dabilela Kuban.

Ahozko inprobisazioagaz harreman estua duzu.

Bai; izan ere, Las Villasen jaio-takoa naiz, eta tradizio handia dago han inprobisaziorako: gure aitona biak repentistak ziren, hemengo bertsolarien parekoak, eta nik ere sarritan idazten ditut dezimak. Habanako Aberri Egunetan bertsolari asko ezagutu dut, eta benetan gauza ederra iruditzen zait bertsolaritza.

Hemengo bertsolariekin ibiliko zara Plateruenean bihar, ezta?

Bai, Igor Elortzak kolaboratuko du kontzertuan. Gainera, Ines

Osinaga musikaria ere gugaz egongo da.

Habanako gaueko giroan poesia sartu gura izan duzula irakurri dizugu.

Bai; izan ere, guaracha, sona eta reggaetona dira, berez, Musika- ren Etxean nagusi. Bertan hasi nintzenean, Luis Zamora poeta gonbidatu nuen nigaz jardutera. Hasieran jendeak ez zuen ondo hartu. Publikoak ordu horretan ez zuen poesiarik nahi. Orain, ikuskizuna egonkortu ostean, berriro hasi gara tarteka poesia errezitaldia ere barneratzen.

‘Al que fuma, bebe y canta, se le jode la garganta’ diskoa prestatzen zabilzate. Zeure esperientzian oinarritu zara?

Asko edan, erre eta kantatzen dut, eta bizimodu horrek Mexikoko kulturagaz daukan harremanari erreferentzia egiten diot kanta horietan: neuk sortutako rantxerak eta korridoek osatuko dute diskoa.

Silvio Rodríguez eta Pablo Milanes dituzu kuttunen artean...

Bai. 1971. urtean jaioetakoa naiz, eta Los Pasteles Verdes, Los Brincos eta Formula V izan ziren nire lehenengo influentziak. Trova berriari ez nion berandura arte arretarik jarri, eta, ezagutu nuen, begiak zabaldu zizkidan.



Hilabeteen zortzi kontzertu eskainiko dituzte Fernandezek eta bere hiru taldekideek.

> MUSIKA Itsaso Esteban Durangon, 1982an, 2007an eta 2010ean jo izan du Montserrat Torrent Serra organista katalanak. Bihar, 20:00etan hasita, Andra Maria elizako organotik eskainiko du 87 urteko organista ezagunak kontzertua. Arandoño elkarteko Xabier Aranak azpimarratu duenez, eroriko baten ondorioz, denbora batez organoa jo barik egon behar izan du Torrentek, eta azkenaldian Kataluniatik kanpo eman duen lehenengo emanaldia izango da Durangokoa.

Johann Sebastian Bach, Johannes Brahams, Jesus Guridi eta Manuel Castillo musikarien konposizioak eskainiko ditu Torrentek Andra Marian. Ohi bezala, publikoak organistaren mugimenduak ondo jarraitu ahal izateko, pantaila bat ipiniko dute aldarean.

Arandoño elkarteak azken urteetan antolatu duen Organo Kontzertuak zikloan ohitura denez, uda aurretik eskainiko dute aurtengo bigarren hitzordua. Xabier Aranak gaur aurreratu duenez, maiatzaren 29an, San Faustoko elizan izango da ema-

Montserrat Torrent organistaren lana Durangon entzuteko aukera

Organo Kontzertuak zikloaren 2015eko lehenengo saioa izango da biharkoa

naldi hori. *Euskal abestiak* izenburuko programa eskainiko dute Ana Belen Garcia organistak eta Amaia Arberas sopranoak.

Konponketak organoan

Andra Maria elizako organoan konponketak egiten jarraitzeko

asmoa agertu du Arana Arandoño elkarteko kideak, Organo Kontzertuak zikloaren barruko kontzertuetarako zein bestelako emanaldietarako prest edukitzeko. Aranaren berbetan, "mezatan jotzeko behar denerako baldintza onak dituen arren,

kontzertuetarako hobekuntza batzuk behar ditu Andra Mari-riko organoak". Hainbat pieza berrizteko, 60.000 euro inguruko konponketak egiteko asmoa dauka elkarteak, elizaren, udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzagaz.



Bachen, Brahamsen, Guridiren eta Castilloren konposizioak joko ditu Torrent Serrak, Durangon.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea



Neskak dantzari

Oier Araolazaren elkarriketari zehaztasun batzuk egin beharra ikusten dut. Neska-mutilek dantzatzeko duten arku- eta zinta-dantzak, jatorriz, Durangoko Korpusean zortzi mutilek dantzatzeko zuten. Dantza galduta zegoen, eta 1886ko Euskal Jaie-tarako berreskuratu zuten gaur egun ezagutzen dugun bezala; jantzi berriekin, eta jatorrizko zortzi mutilei zortzi neska gehituz. Ez zuten pentsatu mutilen tokian neskak jartzea, baizik eta neskei ere tokia egitea. Aldaketa hori XIX. mendean egin zuten naturaltasun osoz.

Iurretan neskak sokan dantzatzeko ohitura ez zuen Humboltekin aipatu, baizik eta Edward Bell Stephens kazetari ingelesak. Edward 1836an, karlistadan, korrespontsal ibili zen, eta 1837an argitaratutako *The Basque Provinces* liburuan aipatzen du, Durangon zegoela, Iurretan nesken sokadantza ezagutu zuela. Erreferentzia hori Iñaki Irigoienek aurkitu zuen, eta pentsatu genuen egokia izango zela Iurretan nesken sokadantza berreskuratzea. Liburua Madrilgo Liburutegi Nazionalan aurkitu genuen, eta hara joan nintzen kontsultatzera. Itzuleran, Iurretako nesken jarrera ez zen izan esperotakoa, baina, Iñaki Irigoieni entzun ondoren, sokadantza dantzatzera animatu ziren. *Iketza* eta Antton Mari Aldekoa-Otalora, *Tiliñoren* laguntzarekin, arduratu ziren neskei bai dantza eta bai kantua irakasteaz. 1995eko San Migel arratsaldean plazaratu zuten Iurretako nesken euren sokadantza. Oierrek zera dio: "Onartu beharra izan zuten emakumeek ere dantzatu zitzaiketela erregelak". Behartuta onartu? Alderantziz, kosta egin zitzaigun eurak plazaratzea.

Noiz plazaratuko dituzte Durangoko eta Berrizko nesken euren lehenagoko sokadantzak?

Azkena Rock Party lehiaketan, Sermond's

Musika lehiaketaren lehenengo edizioa da aurtengoa

> MUSIKA

Gasteizko Azkena Rock jaialdiaren barruan, lehenengoz antolatu dute ARF Rock Party musika lehiaketa. Mila talde eta bakarlarititik gora aurkeztu dira, eta jaialdiaren jarraitzaileek aukeraturiko hemezortzi taldek jokatu dute finala. Sei zuzenekotan joko dute, eta epaimahaiak aukeratutako hiru taldek Azkena Rock jaialdian jotzea izango dute saritzat.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, agenda arazoengatik lehiaketa utzi duen El Fabuloso Combo Espectro taldearen ordezkari joko du Elorrioko Sermond's taldeak. Martxoaren 13an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoko zuzenekoan joko dute elorriarrek. Malasiento eta

The Boo Devils taldeen ostean, 23:00etan joko du Sermond's taldeak. Kontzertu horretarako sarrera gonbidapenen bidezkoa izango da, hau da, doakoa. Azkena Rock jaialdiaren webgunearen bitartez eskuratu daitezke gonbidapenak, kontzertuaren egunera arte.

Martxoaren 13ko

Gasteizko Jimmy Jazz aretoko zuzenekoan joko du Sermond's taldeak

Gasteizen ez ezik, estatuko beste bost hiritan ere egingo dituzte Azkena Rock jaialdiaren barruko emanaldiak.

Bi urtetik aurrerako umeei zuzenduriko film laburren programa, Durangaldean

Sei film laburren bilduma, Durangon eta Zornotzan

> ZINEMA

Zinema Euskadi egitasmoagaz bat egin, eta bi urtetik aurrerako umeentzat pentsaturiko *Pixkanaka-pixkanaka...* izeneko programagaz bat egin dute Durangoko Zugaza zinemak eta Zornotza Aretokak. Asteburu honetan, zinema bi horietan emango dituzte programaren barruko animazioko film laburrak: martxoaren 8an, 17:00etatik aurrera, Zornotza Aretokan; eta martxoaren 7an eta 8an, Durangoko Zugazan.

Rita & Luca films ekoizte-txeak eskainitako programazioa da *Pixkanaka-pixkanaka...* izeneko, eta sei film laburren euskarazko emanaldiak izango

dira Durangokoak eta Zornotzakoa. Emanaldiek 45 minutuko iraupena izango dute, eta, bultzatzaileen berbetan, kalitate artistikoa, balio pedagogikoa eta jolasa uztartzen dituzten sei ekoizpen eskainiko dizkiete ume txikienei: Jose Miguel Ribeiroren *Dodu*, kartoizko mutikoa (Portugal, 2005); Utzi Geffenblad eta Lotta Geffenbladen *Pikart eta orban zirkuan* (Suedia, 2013), *Aston eta harriak* (Suedia, 2007) eta *Abertxikoak* (Suedia, 1996); Frits Stnadaerten *Zurumurruiak* (Belgika eta Frantzia, 2011); eta Jutta Schünemann *Ilargitik zintzilik* (Alemania, 2004) dira emango dituzten filmak.

Alarde de danzas
Día de Andalucía Antolatzailea: Centro Andaluz
Martxoaren 7an
18:00etan

Amodioaren ziega
Lauka Teatroa - Korrika kulturala
Martxoaren 12an
20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK OSTIRALERA	3BIDER2 MARTXOAK 6 OSSO + TUTAN COME ON + JOSEBA B LEINOIR DUO MUSIKA KONZERTUA	RAY FERNANDEZ MARTXOAK 7 22:30ean 10€ RAY FERNANDEZ MUSIKA KONZERTUA	EUSKAL ASSAULT MARTXOAK 13/14 60€ / 35€ EUSKAL ASSAULT METAL JAIALDIA
---	---	--	---

M8! Emakumeen Nazioarteko Eguna



TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA

946 200 492

Pedalei eraginda zabalduko dute emakumeek aldarri feminista

Bihar, martxoak 7, egingo dute Durangaldeko emakumeek bizikleta martxa

► **DURANGALDEA** I. Esteban

Eskualdeko hainbat herritako emakume feministek plataforma bat eratu dute, Martxoaren 8aren bueltan Durangaldeko emakumeen bizikleta martxa antolatzeko. Eskualdeko femi-

nisten arteko komunikazioa handitzeko eta sarea indartzeko helburuz sortu dute plataforma. Ekimena koordinatzea, eta konplizitateak sortzea eta egonkortzea da asmoa. “Modu naturalean sortu da plataforma”,

azaldu dute kideek: “Aurreko bi edizioetan parte hartzeratu den jendeak gero eta gogo handiagoa agertu du bere ekarpena egiteko”. Hainbat kolektibo zein norbanako feminista elkartu dira plataforman, herrietan era-

gin, eta ekintza puntualetarako indarrak batzen jarraitzeko. Plataformagaz hartu-emanetan jarri gura duenak sare sozialak zein frenogabe@gmail.com helbidea baliatu ditzake.

Elkarlanean antolatuko dute Frenorik Ez! bizikleta martxaren hirugarren edizioa. Aurreko urteetan bezala, Zaldibarraren abiatuko dute ibilbidea, 10:30ean, eta Durangorainoko bidea egingo dute, herririk herri sistema patriarkala eraldatzeko behararren aldarria zabalduta. Enkartelada egingo dute ibilbideko herrietan, *Frenorik Ez! Sistema patriarkal kapitalista transformatzeko!* lelopean. Durangora iristean, Andra Mari-ko elizpean egingo dute ekitaldia, 13:30ean, eta, gero, musikak giroturiko poteo feministarako proposamena luzatuko dute.

Parte hartu gura duten emakume guztientzako aukerako ibilbidea izango dela azpimarratu dute antolatzaileek: “Patxadaz joaten gara, ibilbidea samurra da, eta giro ederra egoten da gainera”. Bizikleta, kaskoa eta, elkarrekin martxa koloretsua osatzeko, moztorro eta arropa osagarri biziak bakarrik behar dira parte hartzeko”.

Orain hiru urte, Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira berbetan sortu zuten Durangaldeko ema-

kumeen bizikleta martxaren ideia. Emakumeen espazio publikoaren jabetza islatzen duen ekimena da bizikleta martxa, emakumeen ikusgarritasuna bultzatzeko pentsatutakoa. “Espazio publikoa okupatzeko ekintza egokia iruditzen zaigu”, azaldu dute plataformako kideek. “Gainera, kirola ere esparru oso maskulinizatua denez, emakumeak ikusarazteko modu ederra dela uste dugu”.

Zaldibarraren abiatuko dute ibilbidea, 10:30ean, eta Durangoraino joango dira bizikletaz

Emakumeei ukatutako espazioa sinbolikoki berreskuratzeko ekimena da; emandako pedalkada bakoitza asmo horren aldeko bultzada izango da. “Horregatik, guk, emakumeok, egin behar dugu”, diote ekimenaren bultzatzaileek. Bide horretan, edozelan ere, hainbat modu dauzkate gizonen mugak gurgaz bat egiteko: borroka honegaz bat egiten duen gizonak gure pedal-kadak babestera gonbidatzen ditugu. Erdu elkarretaratzetara, poteora eta borrokara!”.



Urtarrilean hasi ziren eskualdeko hainbat herritako emakumeak bizikleta martxa antolatzeko biltzen.

Martxoak 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
Zaldibar

martxoak 6

AFARIA ETA DANTZALDIA

21:30 Goierriko auzo-etxean .

Autobusa doan, 21: 15ean, udaletxe aurrean.

Txartelak martxoaren 3ra arte salgai,

Karobi eta Olga Bitxiak-en. *Prezioa: 20€*

martxoak 7 / 8

HELMUGA ELKARTEAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA

Liburutegi zaharrean.

Zapatuan: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 19:00

Domekan: 11:00 - 14:00 / 18:00 - 19:00

martxoak 8

EMAKUMEENTZAKO SPINNING MARATOIA

11:00 - 13:00 Udaletxeko plazan edo kiroldegian

(eguraldiaren arabera)

Izen-ematea: udaletxean edo eguen@zaldibar.org helbide elektronikora

idatziz. Izen-emateko azken eguna, martxoaren 3a

Plaza mugatuak (*Lehentasuna, zaldibartarrek izango dute*).

Prezioa: 5€

• Haurtzaindegi zerbitzua behar izanez gero, etorri udaletxera izena

ematera martxoaren 4a baino lehen.

martxoak 11

DONOSTIARA IRTEERA

HELMUGAK antolatuta.

Donostiako zientzia museoa eta planetarioa bisitatu, eta Astigarragako sagardo-museoa ikustera.

Irteera 9:30ean udaletxeko plazatik.

Plazan kirola eginda, berdintasuna aldarri

‘Spinning’ maratokia egingo dute udaletxe aurrean

> **ZALDIBAR** Itsaso Esteban

Bizkaiko Foru Aldundiaren babesagaz antolatu dute Helmuga emakume elkarteak eta Zaldibarko Udalak martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna bueltako egitaraua. Berdintasunaren aldeko aldarria herriko emakume gehienengana zabaltzeko asmoz antolatu dituzte ekintzak.

Programaturiko ekintza horien bitartez, hainbat belau-naldirako emakumeengana hurreratzea dute helburu. Horrela, eguaztenean, umeen jolasgunean hasi zituzten ekitaldiak; clown ikuskizun batez zabaltu zuten kalean zebiltzan umeen eta gurasoen artean berdintasunaren aldeko aldarria.

Gaur, bestalde, emakumeen afaria eta dantzaldia egingo dituzte, azken urteetan bezala, Goierriko auzo etxean. Ohiturazko ekitaldia da hori, urtero harrera ona izaten duena: 50 emakume inguru batzen dira afaritara. Ondo pasatzeko eta berdintasunaren arloko lorpenak elkarregaz ospatzeko hitzordua dute emakume zaldibartarrek gaur. 21:15ean, udaletxe aurrean batuko ditu autobusak joan gura dutenak.

Kirolerako hitzordua

Emakume kirolariei zuzenduta, *spinning* maratokia antolatu dute, udaletxeko plazan. Martxoaren 8an, 11:00etatik 13:00etara ibiliko dira emakume parte-hartzaileak pedalei eragiten. Lehenengoz egingo dute ekintza hori Zaldibarren. Udaleko Berdintasun Sailak jakinarazi duenez, 33 lagunek eman zuten izena martitzenerako. Aurreratu dutenez, baina, 55 bizikleta ipiniko dituzte, eta horiek bete arte domekan bertan ere eman ahaliko da izena.

Emakumeen afaria eta dantzaldia egingo dituzte gaur, Goierriko auzo etxean



Eguzki Zubia aktorearen antzezlan izango da ikusgai, domekan, Errota kultur etxean.

‘Código Atenea’ antzerki obra satirikoa, martxoaren 8an

Antzerki emanaldia eta beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte Abadiñon

> **ABADIÑO** I.E.

Grezia klasikoko mitoak ikuspegi satiriko eta komikotik berinterpretatzen dituen ikuskizuna eskainiko du La Dinamika taldeak, martxoaren 8an, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Beste batzuen artean, honako galdera hau mahaigaineratuko du: “Emakumeak zergatik jarraitzen du oraindik ere gizarte honetan gutxietsia izaten?”. Eguzki Zubia bilbotarra da ikuskizuneko aktore bakarra; izan ere, bakarriketa

da *Código Atenea*. Museo bateko gidari lanean hasten denean eta antzinako mito grekoak ezagutzen dituztenean, Marta etxekoandreak hartu-emanei eta sexuen arteko harremanei buruzko ikuspegia zelan garatzen duen kontatzen du.

Askotariko ekintzak proposatu dituzte Abadiñoko Udalak eta Anbotozpiko Damak emakume elkarteak. Ipuin kontalaritza saioa, zineforuma, autodefentsa ikastaroa eta serigrafia tailerra antolatu dituzte,

besteak beste, martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna gogora ekartzeko prestaturiko egitaraurako.


Horma-irudia marrazten

Gaur hasi eta hamar egunez, horma-irudi bat margotuko dute gazte abadiñarrek, gizon-emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzeko eta sexu indarkeria salatzeke. San Prudentzio kale inguruan ibiliko dira, martxoaren 16ra bitartean, horma-irudi hori egiten.

IRAGANA BURUAN
ETORKIZUNA ESKUAN



MARTXOAK
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA



Asociación
Buenas Mujeres
del Mundo

MARTXOAK 6

18:00 - 19:00, Mediatekan

IPUIN KONTALARIA

‘Zu eta ni’ *Dorleta Kortazar*

MARTXOAK 7

17:00 - 19:00, Errota Kultur Etxean

TOPAKETA

‘Hango eta hemengo emakumeak’

(Elkarrean aurkezpenak, dantza nigeriaren erakusketa...)

MARTXOAK 8

19:00, Errota Kultur Etxean

ANTZERKIA

‘Código Atenea’

La Dinamika konpainia

MARTXOAK 9 ETA 16

17:00-19:00, Matienan

**MURAL
MARGOKETA**

MARTXOAK 10-27

Errota Kultur Etxean

ERAKUSKETA

Martxoak 8ko kartelak

MARTXOAK 14

10:00-14:00 / 15:30-19.30

Txanporta Kultur Etxean

**AUTODEFENTSA
IKASTAROA**

OHARRA:

* Izena eman beharra

MARTXOAK 18

18:00

Txanporta Kultur Etxean

ZINEFORUMA

MARTXOAK 20

16:30-20:30

Txanporta Kultur Etxean

**SERIGRAFIA
TAILERRA**

Amak eta kirolariak, konplexurik gabe



> ERREPORTAJEA Jone Guenetxea
Ama bakoitzak bere modura bizi du amatasuna. Edozein kasutan, lana eta familia bateratzea ez da erraza izaten. Binomio horretan askok hirugarren aldagai bat barneratzen dute: kirola. Baina badago ama eta kirolaria izaterik? Jakina baietz. Durangaldeko lau kirolariren esperientziek erakusten dute gizarteak inposatzen duen ama izateko eredu bakar eta itxitik kanpo bakoitzak bere bidea aukeratu dezakeela. Naia Alzolak, Oihana Azkorbebeitiak, Silvia Triguerosak eta Maider Undak horixe partekatzen dute: ama izateaz gozatzeko eta kirol munduan ibiltzeko gogoa.



MAIDER UNDA
Borrokalaria

“Olinpiar Jokoetan nire helburua bete nuen, eta nire hurrengo helburua ama izatea zen”

Parisko *Grand Prix* txapelketa aukeratu du Maider Undak (Gasteiz, 1977) borroka librean goi mailako lehiara itzultzeko. Iazko abuztuaren lean ama izan eta gero, lehiara bueltatu da. “Olinpiar Jokoetan nire helburua lortu nuen [brontzezko domina eskuratu zuen], eta hurrengo helburua ama izatea zen”. Hasieran, ez zuen uste ama izan eta gero kirolera itzuli ahal izango zenik. “Apurka-apurka entrenatzen hasi nintzen, eta, gauzak ondo zihozela ikusi nuenez, animatu egin nintzen txapelketetara itzultzen”.

Norgehiagokara itzultzeko Undak bere bikotearen babesa du: “Berez, goi mailan bizi garen emakumeon ondoan egoteko, bikoteak berezia izan behar du. Jakin behar du entrenatzeko deskantsatu egin behar duzula, eta hori ezin da izan zure bikotekideak ez badu laguntzen. Umea biren artean ekartzen da, eta ados

egon behar dugu horretan. Baina, ordura arte zure ondoan egon bada, badaki zer den goi maila. Hori da azkenean gu betetzen gaituena, eta hori errespetatzen eta horri laguntzen jakin behar du”.



NAIA ALZOLA
Txirrindularia

“Banekien geldione bat egongo zela, eta ordura arteko moduan ezingo nintzela ibili kirolean”

Diman bizi da Naia Alzola (Durango, 1976), eta ume bi ditu. Urte askoan txirrindularitzan, triatloian eta eskian ibili eta gero, etenaldi bat egitea erabaki zuen ama izateko. “Argi nuen, oso gaztetatik, ama izan nahi nuela. Gainera, ikusten nuen ziklo-krosean eta triatloian nire inguruko neskei gertatzen zitzaiena. Ama izan nahi zuten, baina atzeratu egiten zuten erabaki hori, kirol arloko helmugak lortzeko. Nire buruari 30 urteko muga jarri nion ama izateko”. Asko pentsatuko erabakia hartu zuen Alzolak. Bizitza aldaketa horretan bazekien kirol arloan eten bat izango zela. “Banekien geldione bat egongo zela. Kirolean ezingo nintzela ibili ordura arteko moduan. Haurdunaldian beldurra nuen bizikleta gainera igotzeko; autoak gerturatzeak beldurra ematen zidan, zeozer gertatu zitekeela-koan”. Kirola egin bai, baina entrenatu ez zuen egin haurdunaldian.

“Lehenengo umea eduki eta bi hilabetera korrika egitera irten nintzen. Zure gorputza hain deformatuta ikusten duzu... Negarrez bueltatu nintzen”. Lehiara itzultzea ere erabaki zuen Alzolak. “Nirea gaixotasuna da. Dortsala jartzean gozatu egiten dut. Lasterketetako giroa bizi dut. Banekien motibatzeak era errazena helburutxo bat jartzea izango zela. Ingurukoek barre egiten zidaten, baina,

nire burugogorkeriaren ondorioz, entrenatzen hasi nintzen”. Alzola banatuta dago, eta aitortu du familiaren babes barik ezingo litzatekeela lehiatu.

Ama perfektuaren ereduaren atzaparretatik ez da inor libratzen, ezta Alzola ere. “Titia eman behar diegu umei, kirola egin behar dugu, argal eta guapa egon behar dugu, eta ileak depilatuta eduki behar ditugu. Irudi horretatik irteten bazara, errudun sentitzen zara. Ostiral goizean jai izan, eta, umeen jaira joan beharrean, entrenatzera bazoaz, horrela sentitzen zara. Ziklo-krosean neguan ibiltzen naiz, eta goiz batean umeak ohetik jaiki eta lasterketara joan ginen. Autora igotzean, sentsazio horregaz sartzen zara. Jendeari entzuten diot: ‘Zer beharri-zan duzu honetarako?’. Horrek betetzen nau, baina gizarteari zelan azaldu horrela sentitzen naizela zoriontsu?”. Argi du gizon kirolariek aitatasuna ez dutela era horretan bizi. “Praktikoagoak dira horretarako. Gainera, gu matriarkatu batek gatoz, eta hori igarri egiten da”.



SILVIA TRIGUEROS
Korrikalaria

“Badakigu hau hiru edo lau urteko kontua izango dela gehienez, eta aprobetxatu egin gura dugu”

Baliteke Silvia Triguerosena (Barakaldo, 1976) ezohiko kasua izatea. Mendizalea izan da beti, eta seme bi izan eta gero hasi zen mendi lasterketetan lehiatzen. “Ez nuen astirik mendira ibiltzera joateko, eta arineketan egiten hasi nintzen. As-tean hiru aldiz korrika egiten nuen forma mantentzeko. Koinatuagaz mendiko lasterketa batera joan nintzen, eta, asko sufritu arren, oso gustura sentitu nintzen”. Lehiatzen daramatzan lau urteei etekin handia atera die. Besteak beste,

Hiru Handiak eta Espainiako Ultra Traila irabazi ditu. Aitortzen duenez, desorduetan entrenatu ohi du umeekin egon ahal izateko.

Triguerosen senarra da bere jarraitzaile sutsuena. “Batuetan harengatik joaten naiz lasterketa batzuetara edo besteetara. Hurrengo urteko egutegia elkarrekin egiten dugu. Ahalegina egiten dugu familia osoa joan dadin asteburua pasatzera edo oporretara, lasterketen arabera. Aitzakia ona da leku berriak ezagutzeko. Gainera, badakigu hau hiru edo lau urteko kontua izango dela gehienez, eta aprobetxatu egin gura dugu”. Bereziki gogoratzen du bere lehenengo txapela, orain hiru urte, Goierriko Bi Handietan. Familia helmuga zuen zain. “Lasterketa dezente eginak neuzkan, baina lehenengo txapela izan zen. 80 kilometrotik 30 lehenengo postuan egin nituen bakarrik. Helmugara heldu nintzenean, nire umeak nigaz sartu ziren. Hunkigarria izan zen”.



OIHANA AZKORBEBEITIA
Korrikalaria

“Korrika egitera itzultzeko bikotearen babesa izatea nahitaezkoa da, bestela, ezingo litzateke”

Oihana Azkorbebeitia (Abadiño, 1981) mendi lasterketetan dabil, nahiz eta ogibidez albaitaria izan. Besteak beste, Hiru Handiak eta Sorginen lasterketa irabazi ditu. “Ez naiz kirolek bizi, beraz, pentsatu nuen ama izan nintekeela eta baita kirolaria ere. Ondoren lehengo maila ez ematea ere ez zitzaidan inporta, ez bainaz honetatik bizi”. Haurdun gelditu zenean, korrika egiteari utzi zion. “Eguzkeraren oinez buelta bat ematera irteten nintzen, baina arineketan ez”.

Umea eduki eta gero, kirolera bueltatzea erabaki zuen Azkorbebeitiak, baina ez lehengo beste. “Korrika egitera itzultzeko bikotearen babesa izatea nahitaezkoa da”. Denbora ahal duen moduan antolatzen du Azkorbebeitiak. “Egoera onartu beharra dago; hau da, ezin zara lehengo moduan ibili, baina egoera berri horretara moldatu zaitezke. Egin deza-keguna egiten dugu, eta ezin bada, ez da ezer gertatzen”.

Umea izan ostean –orain 19 hilabete ditu–, parte hartu zuen lehenengo lasterketa oso gogoan du abadiñarrak. “Gauza asko batu zitzaizkidan. Lo gutxi eginda, urduri, gorputza oraindik berera bueltatu barik, sentsazio arraroa izan nuen. Irteeran hasi nintzen pentsatzen ea itzuleran umea zelan egongo zen. Bularra ematean orkatilak bihurtu egiten zitzaizkidan. Artikulazio kontua izan zen. Irizpideak guztiz aldatzen dira. Badaude maila berera edo altuagora itzultzen diren pertsonak, baina norbera eta irizpideak aldatu egiten dira; dena bizi duzu beste modu batera”.

Martxoak 8

DURANGO 2015

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoak 7

DURANGALDEKO EMAKUMEON III. BIZIKLETA MARTXA

10:30 Hasiera Zaldibarren-Amaiera
Durangoko Andra Marin **14:00**ak inguru.
Antolatzaileak: Frenorik ez! plataforma.

Martxoak 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

X LILAKROSA

11:30 Kamisetak banatzea. Photocall.

12:30 LILAKROSA Berdintasunaren
aldeko X. Ibilbidea. Ezkurdi Plazan.

BAZKARIA

15:00 Plateruenean. Ticketak Plateruenean,
martxoaren 5 arte. Prezioa 22 €.
Plateruena hasta el 5 de marzo. Precio 22 €.
Menu vegetarianoa nahi izanez gero abisatu
ticketa hartzerakoan

MANIFESTAZIOA

18:30 Irteera Santa Ana plazan.
Antolatzaileak: Plataforma Feminista.

Martxoak 9-13

ERAKUSKETA GIDATUA IKASTETXEENTZAKO

'Emakume eta zientzia' San Agustin Kultur
Gunean.

Martxoak 13

HITZALDIA

'Violencia contra las mujeres' Lidy Lee.
Antolatzaileak: 'Asociación cultural para la
convivencia Mujeres con futuro' elkarteak.

18:00 Pinondo Etxean (sarrera doan).

Martxoak 14

ABESBATZA

VOCALIA TALDEA 'Andra'.

19:00 Bartolome Ertzilla Musika Eskolan.
(sarrera doan).



AUKERA
BERDINTASUNA
IGUALDAD DE
OPORTUNIDADES
DURANGO
Udalea - Ayuntamiento



andragunea
Espazioa emakumeentzat

San Agustin
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA



CENTRO
CULTURAL
San Agustin
AYTO. de DURANGO

Danele Sarriugarte | Elgoibar, 1989 | Idazlea eta itzultzailea |

“Erlazio erromantikoen desmitifikazio bat lantzen da liburuan”

‘Erraiak’ liburua dakar Sarriugartek Elorrriora

► **LITERATURA** Markel Onaindia Duela urtebete kaleratu zuen Danele Sarriugartek ‘Erraiak’, bere lehenengo nobela. Neska batek izandako bikote haustura da liburuaren abiapuntua, eta, hari horri segika, harreman erromantikoei kritika egin die. Idazkera gordina eta ironikoa erabili du; eta estilo bereko argazkia bidali digu.

‘Erraiak’ liburua, zure gogoetak kaleratzeko tresna bat izan da, ezta?

Gai batzuei buruzko kezkek neuzkan, eta ez nuen saiakera liburu bat egin nahi. Beraz, bai; gai horiei irteera emateko landuta dago nobela. Bestalde, uste dut egoera batzuk hobeto azaltzen direla adibideen bitartez. Horrela, irakurlearekiko identifikazioa errazagoa dela iruditzen zait.

Erlazio eta eredu tradizionale-tatik aske izan guran dabilen neska bat da narratzailea. Baina baditu kontraesanak.

Bai. Nik iritzi bat daukat hartu-eman mota batzuei buruz, eta horiek sortzen dituen gizarteari buruz. Baina ez nuen prediku bat egin nahi. Gainera, ez da horrela; beti daude kontraesanak. Kritikagaz batera, egoera sinesgarri bat eman nahi nuen; inoiz ez gaude askatuta inguratzen gaituenetik.

‘Zu barik ez naiz ezer’ eta horrelako mezuak jasotzen ditugu egunero. Beste tratamendu bat eman diozu.

Hartu-eman erromantikoen desmitifikazio bat dago liburuan, hori egurtu gura nuen. Bikote hartu-eman horrek zoriontasuna ekarriko duela gezurtatzeko saiakera egin dut. Eredu horrek

frustrazio handiak eta jabetza loturak sortzen ditu pertsonengan, eta lotura horiek ez dira osasungarriak. Mezuei dagokienez, emakumeen kasuan, zelako kaka sartzen duten ikusten dugu.

Sexuaz nahiko gordin idatzi duzu. Zergatik?

Nire asmoa ez zen gordin egitea, naturala izatea baizik. Jendeak identifikatuko zituen eszenak agertzea zen helburua. Amodio erromantikoaren desmitifikazioagaz lotuta dago; kontaketa askotan sexu eszenak daudela iradoki dut, baina ez dira agertzen.

Kritikei begiratuta, nobedade lege hartu da neska batek estilo gordin eta ironiko horretan idaztea.

Emakumeen literatura deitu izan zaio idazketa leunago bati. Gure gizartearen ordenamendu sozialak dakar emakumea subjektu ez izatea, askoz irudi erromantikoagoa edukitzea... Esan guratsua da ni bezalako neska gazte batek horrela idazteak harridura sortzea. Baina, aldi berean, ez da harritzekoa, orain arte ez delako ohikoena izan.



Nire aurretik ere egon izan dira beste batzuk, baina, beharbada, haien garaian ez zituzten hain ondo hartu. Nire sasoian diskurtso feministak beste presentzia bat dauka, eta horri esker hobeto ulertu da egin dudana.

Feminismorako ekarpen bat al da ‘Erraiak’?

Ez nago talde batean ere, baina mugimenduan banago. Liburuko gai batzuk zirkuluetan bazeuden lehendik, baina ekarpen bat izan ahal da hori idatzita egotea.

Emakumeak eta literatura hartuko dituzte ardatz Elorrion

‘Emakumeak lanean’ argazkigintza dokumentalaren erakusketagaz zabaldu dute egitaraua; ondoren, emakume idazleen erakusketa izango da ikusgai Iturriin

Emakumeak eta literatura
Egunero delako martxoak 8a

Martxoaren 8tik 13ra
Erakusketa
Emakumea lanean

Martxoak 11n 19:30
Hileko dokumentala
“The good son”
V.O.S.

Martxoak 13 17:00
Ipuin kontalaria
“Ah zelako neskak!”

Apirilak 15, 19:00
Erraiak Liburuaren aurkezpena
Danele Sarriugarte idazlearekin

Apirilak 17 barikua, 19:00
HITZALDIA
“Desmontando sombras de Grey”
Josune Muñoz

Apirilak 23, 19:00
Poema errezitaldi musikatua
“Zure hatzaren ez galtzeko”
Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez

Jarduera guztiak ITURRI Kultur Etxean egingo dira

Elorrioko udala



Iturriko erakusketako argazki bat.

► **EGITARAUA** Jone Guenetxea Emakumea eta literatura oinarri hartuta, egitaraua zabala antolatu dute Elorrion, Martxoaren 8a dela-eta. Martxoaren 13ra bitartean argazkigintza dokumentala oinarri duen erakusketa bat ikusgai izango da Iturri kultur etxean. Gasteizko udal artxiboko 40 argazkik osatzen dute, eta XX. mendearen hasie-

ran emakumeek egiten zituzten lanak iruditzen agertzen ditu. Hurrengo erakusketa emakume idazleen ingurukoa izango da, apirilaren 23tik aurrera.

Martxoaren 11n, 19:30ean, Iturri kultur etxean proiektatu-ko duten *The Good Son* hileko dokumentala ere Emakumeen Nazioarteko Egunagaz lotuta dago. Or 22 urteko gazte bat da,

eta ez dagokion gorputz batean harrapatuta dagoela sentitzen du. Bere aldaketa prozesuaren

Martxoaren 11n, ‘The Good Soon’ hileko dokumentala proiektatuko dute Iturri kultur etxean

lekuko izango da dokumental honetako kamera.

Azken boladan zeresan handia eman duen *50 sombras de Grey* nobelaren inguruan berba egitera etorriko da Skolastikako Josune Muñoz Elorrriora, apirilaren 17an. Nobelaren atzean ez-kutatzen diren estereotipoak eta mitoak azaleratzen saiatuko da.

Poema errezitaldia

Elorrioko egitarauagaz amaitzeko, poema errezitaldi musikatuan bilduko dira Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez, apirilaren 23an.

Emakumeek korrika batera egiteko taldea sortu dute Iurretan

Domeka honetan egingo duten proba izango da Gu Be Bai Runners Iurreta taldekoeen abiapuntua

> KIROLA Markel Onaindia

Gu Be Bai Runners Iurreta ize-neko taldea sortu dute udalaren eta Iraia Garcia atleta zornotzarren eskutik; martitzenean egin zuten aurkezpena. Herriko emakumeek korrika batera egiteko ekimena da, eta domeka honetan hasiko dira partaideak batzen; martxoaren 8tik 23ra bitartean egongo da izena emateko aukera. Edozein adineko andreek parte hartu ahaliko dute, gaitasunaren arabera hiru taldetan banatuta: batzuk oinez ibiliko dira; beste batzuek, oinez ibiltzeaz gainera, arineketan egingo dute; eta gainerakoek ari-neketan bakarrik egingo dute. Inskripzioa doakoa da.

Martxoaren 8a taldearen abiapuntu izateko aprobetxatuko dute. Izan ere, 11:30etik aurrera inskripzioak egingo dituzte Askondo kalean. 12:00etan, adierazpen instituzionalaren ostean, gerturatzen direnekin probarako saioa garatuko dute.

Aita San Migel plazaraino oinez joango dira, eta bertan taldeka banatuko dira. Plazatik Berezi parke ingururaino joango dira, eta gero buelta egingo dute.

Astean birritan

Gu Be Bai Runners Iurreta taldekoe astean bitan edukiko dute kirola egiteko aukera. Astelehen eta eguaztenetan elkartuko dira plazan, baina ordua oraindik zehazteke dago. Izena ematean, bakoitza zer ordutan geratu ahal den ipintzeko eskatuko diete, eta adostasun handiena duten orduetan irtengo dira korrika egitera. Inskripzio epea amaituta, apirilaren 13an egingo dute lehenengo saioa, Aste Santua pasatu ostean. Ekainaren 29ra arte iraungo du ikasturte honetako ekinaldiak; gutxi gorabehera hiru hileko iraupena dauka, beraz. Saio bakoitza ordubeteko izango da; 40 minutuan ibiliko dira, eta beste hogeia luzaketak egiteko erabiliko dituzte.



Anderebide elkarteko Ana Mari Urkidi, Iñaki Totorikaguena alkatea eta Iraia Garcia atleta, aurkezpenean.

Irakasle edo gidari aparta edukiko dute Iurretako andreek, elitekoa. Izan ere, Iraia Garcia Euskadiko kross txapelduna da, eta Bizkaiko txapela ere lautan jantzi du.


Zornotzako esperientzia

Garcia Zornotzatik ekarri du emakumeentzako korrika taldea sortzeko ideia. Duela urtebete hasi ziren zornotzarrak batzen, eta, dagoeneko, 59 dira.

Apirilaren 13an egingo dute lehenengo saioa, Aste Santua pasatu ostean

Garcia, entrenatzera irtetean, beti ikusten zuen emakumeren bat kirola egiten, eta hausnartu zuen gehiago izango litratekeela, taldeka irtengo balira. "Askotan ez dugu inor topatzen kirola egiteko", eta horrek atzera botatzen ditu emakume asko.

Udalaren helburua da emakumeek eta gizonek egunero-kotasunean kirolari eskaintzen dioten denbora orekatzen ahalgintzea.



Dokumentalean parte hartu duten emakumeetako batzuk.

Herriko hogeia emakumegaz dokumental bat landu dute

'Iurretako emakumeak atzo eta gaur' dokumentala proiektatuko dute gaur

> DOKUMENTALA M.O.

Gaur, 19:00etan, proiektzio berezia egingo dute Ibarretxe kultur etxean. Iurretako Udalaren ekimenez, herriko hogeia emakumegaz dokumental bat landu dute, bakoitzaren bizimoduak eta ikuspuntuak azaltzeko. *Iurretako emakumeak atzo eta gaur* izena ipini diote filmari. Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatearen esanetan, emakumeen lanari balioa emateko egitasmo bat da: "Historikoki emakumeek eduki duten paper garrantzitsua azpimarratu gura izan dugu".

Etxekoandreak, politikariak, baserritarrak, beharginak... Sektore askotako andreak hartu

Totorikaguena alkatearen esanetan, emakumeen lanari balioa emateko egitasmo bat da

dituzte kontuan dokumentala grabatzeko. Guztira, 40 minutu iraupena dauka.

Bihar, afaria

Horretaz gainera, beste hainbat ekitaldi ere egongo dira Iurretan, Martxoaren 8aren harira. Udalak eta Anderebide emakumeen elkarteak antolatu dituzte elkarlanean. Bihar, adibidez, emakumeentzako afaria egongo da Goiuriko Ikuspegi jatetxean, 21:30ean. Lehenago, 20:45ean, Bidebarrietan elkartuko dira, autobusez bertaratzeko aukera egongo da eta.

Afariaren ostean, gainera, dantza egingo dute erromeriak lagunduta, eta jai giroari segida emango diote horrela.

MARTXOAK 8 IURRETA - 2015

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

barikua
6
19:00

Ibarretxe Kultur Etxea
ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA
'Iurretako emakumeak atzo eta gaur' DOKUMENTALA

zapatua
7
21:30

Emakumeentzako afaria-dantza
Goiuriko Ikuspegi jatetxea
20:45 Autobusa - Bidebarrieta
*** Aurretiaz izen-ematea.**

domeka
8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
12:00 GU BE BAI RUNNERS - IURRETA
F. J. Askondo kalea
Taldea (Ibili · ibili + arineketan · arineketan)

barikua
13
16:30
18:30

Goiuria kultur elkarteak
BIODANZA TAILERRA
*** Aurretiaz izen-ematea.**

Argibide gehiago, izen-emateak eta txartelak salgai:

Ibarretxe Kultur Etxea
gizarte-ongizate@iurreta.net
Tel.: 946 200 342

Goiuria Kultur Gunea
Anderebide emakumeen elkarteak
anderebide@gmail.com
Tel.: 616 490 506

25 ORTE

Bizkaia Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Andereak elkarte Murtxe Arratibel eta Miren Sarrionandia, elkarteentzat Pinondon eskaintako hitzaldian.

Indarkeria matxistaren kontra elkartearen parte-hartzea sustatuz

Matxismoaren kontra elkarteetatik zer egin azaldu du Andereak elkarteak

> HITZALDIA Joseba Derteano Emakumeen kontrako indarkeria denon erantzukizuna da. Beraz, elkarteetatik zer egin daiteke horren kontra? Galdera horri erantzuteko, Durangoko elkarte bideratutako hitzaldia eskaini zuten Andereak elkarte Murtxe Arratibelek

eta Miren Sarrionandiak martitzenean, Pinondo Etxeko areto nagusian. Hitzaldia ez zen gomendioetara mugatu. Andereak taldearen helburua elkarteekin elkarlanean aritzea da; indarkeria matxistari aurre egiteko sare zabal eta eraginkorra sortzea, elkarte batek bestea elikatzeke.

Durangoko hainbat elkarte batu ziren hitzaldira: besteak beste, Durango Kirol Taldea, Uztai, Geu Be eta Zabaltzen elkarteak. Apirilean ildo bereko beste hitzaldi bat antolatuko dutela aurreratu zuten, eta berriro ere Durangoko elkarte guztiei luzatuko diete gonbita.

Indarkeria matxistak aurpegi asko ditu; eraso fisikoak, bortxaketak, oihuak, mehatxuak, hilketak... Arratibelen berbetan, “eredu patriarkalean oinarritutako gizartearen azken ondorioak lazgarriak dira, ikusten dena icebergaren tontorra besterik ez da”. Baina badago beste indarkeria mota bat, ikusten ez dena edo ikusteko hain erraza ez dena, normalizat hartzeko joera duguna, gizartearen normaltasunez ematen delako. “Sarritan, gizartearen indarkeria matxista modu zolian agertzen da, natural bihurtu delako, eta beti ez da erraza identifikatzea”. Publizitatean, umorean, hizkuntzan... Egunerokotasunean ematen dira, etengabe, eta zelanbait indarkeria mota bortitza goaren sostengu edo erregai dira: “Sarritan ez dira intentzioz egiten. Heziketa kontua da, eta horrela irteten da. Horregatik, garrantzitsua da, lehenengo, horretaz jabetzea eta, ondoren, ‘nahikoa da’ esatea”.

Horren guztiaren aurrean, “inguruko pasibotasuna apurtzea” da elkarteek hartu beharreko jarrera: “Arazo sozial bat da, eta horren kontzientzia hartu eta zabaldu behar da; garrantzitsua da herritarren inplikazio pertsonala sustatzea”. Horregaz batera, tratatu txarra ematen dutenekin eta erasotzaileekin “ze-

ro tolerantzia” izan behar dute, “inpunitateagaz apurtzeko”. Horregaz batera, gizon eta emakumeen arteko erantzukizun partekatua sustatzen ere ahalegindu daitezke elkarteak.

Elkarteetako egituretan, erabakimena duten karguetan landu beharreko beste atal bat emakumeek duten presentzia da, edo, hobeto esanda, presentziarik eza. Mundu mailako erakunde inportanteenetatik hasita (Ibex 35, Greziako Syriza presindetearen gobernu taldea...) herri mailako elkarteetaraino.

Andereaken bitartekari lana

Indarkeria matxista jasan duten emakumeei sostengua emateko Andereak elkarteak dituen baliabideen berri eman zuten hitzaldian. Andereak Tartekari Sareko kidea da. Tartekari Aldundiak 2012an abiatutako programa da. Askotan, tratatu txarrak jasan dituenaren eta erakundeek arazo horietara bideratuta dituzten bitartekoen arteko lotura falta izaten da. Herrietako elkarteetan bilatu dituzte bitartekariak. Horregatik, Andereak elkarteak boluntario bi ditu, emakumeei babesa, laguntza eta orientazioa eskaintzen dietenak. Hartu-emanetarako 688 871 627 telefonoa eta andereak@hotmail.com helbide elektronikoa dituzte.

martxoak 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 7
 ‘Uxue eta Haimar elkarrekin’ (ipuin kontalaria)
12:15ean, Kultur Etxean - Euskaraz.

‘Mucho ruido y pocas nueces’ (Las Grotesques)
20:00etan, Kultur Etxean - Gaztelaniaz
 Sarrera: 8€

MARTXOAK 8
11:45ean: VI. Añieketan
 Berrizburutik Olakueta plazaraino
 VI. Añieketan Sari banaketa, elkarretaratzea
 eta adierazpen instituzionala irakurriko da.

MARTXOAK 12
 ‘Los limoneros’ - Zineforuma
16:30ean, Kultur Etxean - Euskaraz. DOAN.

Elkarri berdintasun lekukoa emanez

Añieketan lasterketa egingo dute Berrizen, domekan

> BERRIZ Amaia Ugalde Korrikaren eredia hartuta, lasterketa berezia egiten dute data hauetan, Berrizen: Añieketan. Domekan, Berrizko elkartearen ordezkariak lasterketako lekukoa eramango dute eskuz esku, eta, barruan, elkarte bakoitzak berdintasunaren inguruko esaldi bat sartuko du.

Aurten, Añieketan lasterketaren seigarren edizioa izango da, eta, ohikoa denez, Berrizburun hasi, eta Olakueta plazan amaituko dute emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko laster-

keta. Jende ugari batzen da ekimenean; iaz, esaterako, 150 bat lagun ibili ziren arineketan.

**Lasterketa amaieran,
elkarrekin idatzitako
mezuak irakurri,
eta txapel moreak
banatuko dituzte**

Lasterketa amaieran, elkarrekin idatzitako mezuak irakurriko dituzte, eta saria, txapel

more bana, emango diete elkarte bati –oraindik ez dute sarrituen berri eman– berdintasunaren alorrean egindako lana eskertzeko.

Gaur, ipuinak eta antzerkia

Kaleko ekitaldiez gainera, Kultur Etxean, berdintasun gaiez hausnartzeko aukera egongo da. Gaur, eguerdian, umeentzako ipuin kontalaria izan dute, eta, 20:00etan, *Mucho ruido y pocas nueces* obra taularatuko du Las Grotesques antzerki taldeak. Shakespeareren izen bereko lanaren moldaketa umoretsua da.

Bestalde, datorren egunean, martxoak 12, zineforuma egongo da, *Los limoneros* pelikulagaz, 16:30ean. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkan kokatutako filma da eskainiko dutena.



Añieketan lasterketan berdintasun mezuz betetako lekukoa eramaten dute eskutik eskura.

EDERTASUN GIDA



Nerea Sarriugarte.

'Yo-yo' efekturik ez!

Pisua etengabe galtzeak eta irabazteak arriskuan jartzen du gure osasuna, eta gure hurrengo dieten emaitza baldintza dezake.

Zelan saihestu daiteke?

1. Dietagaz hastea nahi dugula argi izan.
2. Helburu errealistak zehaztu.
3. Pisua pixkanaka galdu, goserik pasatu gabe, eta, bukatzean, dagokion mantentze dieta jarraitu.
4. Ez dira karbohidratoak kendu behar: orokorrean, dieta hauek eragiten dute 'yo-yo' efektu gehien.
5. Elikagai osasuntsuekin disfrutatzen ikasi behar da.
6. Dieta eta bizitza soziala bat etorri daitezke.
7. Mugi zaitetz! Bizimodu sedentarioa alde batera utzi!

ZUZENKETA:

Joan zen asteko ANBOTOn, akatsak egon ziren nire berbak islatzean.
-Dieta makrobiotikoaren inguruan, ez da fidatze kontua, baizik eta elikagaiak yin eta yang energien arabera sailkatzeak ez duela oinarri zientifikorik.
-Fruta eta barazki kopuruak alderantziz zeuden: bi barazki ale eguneko, eta hiru fruta ale eguneko gomendatzen dira.
-Dietatik okela kentzeak soilik ez du arriskurik. Begetariano zorrotz baten kasuan, orduan bai, ezagutzarik gabe egiten bada, arriskutsua izan daiteke, eman daitezkeen nutriente gabeziengatik.



ILE APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



DIETETIKA eta NUTRIZIOA



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Eskualdeko publikoaren aurrean zabalduko dute, martxoaren 12an, 'Amodioaren ziega'

Lauka taldeak Durangon eskainiko du antzezlan; Durangaldeko hiru aktorek dihardute talde horretan



Joan zen barikuan, Leioako Kultur Maratila jaialdian estreinatu zuten 'Amodioaren ziega'.

> ANTZERKIA

Durangoko San Agustin kulturgunean, Korrika Kulturalaren programazioaren barruan eskainiko du Lauka antzerki taldeak *Amodioaren ziega* obra, martxoaren 12an. Eskualdeko publikoaren aurrean euren antzezlan erakusteko aukera izango dute, beraz, Eneko Sagardoy eta Joana Ocaña durangarrek eta Nazaret Froufe berriarrak, datorren egunean, 20:00etatik aurrera. Karrika

antzerki taldeagaz sarritan zapal dutako oholtzatik ariko dira, eta, Joana Ocaña taldekideak azaldu duenez, "proiektu hau gauzatzeko lehenengo urratsak eman genituen lekura bueltatzek ilusio handia egiten digu".

Egueneko antzezpene horretaz gainera, antzerkigile gazteen beste emanaldi bat ere antolatu dute, martxoaren 15erako, San Agustin kulturgunean. Emanaldi bietarako sarrera eskaintza berezia egingo dute, gainera.

Joana Ocaña: "Estreinaldi osteko inpresioak askotarikoak izan dira, baina, oro har, positiboak"

Aitorrek eta Mirenek osaturiko bikotearen istorioa du ardatz *Amodioaren ziega* obrak; bata preso dago, eta bisitan joan zaio bestea. Lau aktorek gorpuzten dute bikotea: Sagardoyk,

Ocaña, Froufek eta Urki Mugu-ruza zaraiztarrek.

Joan zen barikuan, Leioako Kultur Maratila jaialdiaren barruan estreinatu zuten *Amodioaren ziega*. "Gogotsu egin genuen estreinaldia", kontatu du Ocaña taldekideak. "Gure gizarteko errealtatearen zati bat denez, hurbilagotik edo urrunagotik, denok ezagutzen dugun arazo sozial bat da kartzelarena, eta nik uste dut gizatasun handiz kontatzen dugula. Jende

asko hunkitu egin zen Leioako emanaldiagaz. Beste batzuek, oster, barre asko egin zuten, eta asko eskertu genuen hori. Estreinaldi osteko inpresioak askotarikoak izan dira, baina orokorrean positiboak", dio Joana Ocaña aktoreak.

Xabier Mendigurenek idatzitako gidoian eta olerkietan dago oinarrituta antzezlan. Kartzelako aurrez aurrekoen bizipenak ezagutzeko, bestalde, preso egondako hainbat lagunekin elkarriketak eduki dituzte Lauka taldeko antzezleek.

Egileen berbetan, estetikoki ikuskizun xumea izan arren, alde artistiko landua du *Amodioaren ziega* lanak: taldekideek kolorea, argiztapena eta eszenografia erabili osaturikoa.

Bi urtez ideiak gauzatzen

Duela bi urte abiatutako sorkuntza prozesuaren emaitza da martxoaren 12an Durangon ikusgai izango dugun antzezlan. Aulestiko 2013. urteko antzerki topaketetan elkartu ziren Lauka konpainia sortu duten lau antzezleak. Euskal idazleen hainbat testu landu zituzten Manex Fuch antzerkigileagaz; tartean, Xabier Mendigurenena.

Bi urteotan antzezlan gauzatu ahal izateko lan handia egin dute antzerkigile gazteek, eta Zubi lehiaketa irabazi izanak babestu du proiektua. Euskal Herriko antzerkigintzako hainbat eragilek bultzatutako proiektua da Zubi; antzerki proiektu gazteak diru-laguntzagaz eta aholkularitza artistikogaz sostengatzen dituen.

Gijongo Feten sariketan goraipatu dute Markeliñeren 'Kixote' obra

Sormen, dramaturgia eta eszenografia lana saritu diote Zornotzako taldeari



Urtarrilean, Zornotza Aretoan estreinatu zuen Markeliñek 'Kixote'.

> ANTZERKIA

Haur eta gazteentzako antzerki-gintzaren Feten lehiaketan saritu dute Zornotzako Markeliñe antzerki taldea. Urte hasieran estreinatu duten *Kixote* antzezlanean, sormenari, dramatur-

giari eta espazio eszenikoari dagokionez, Markeliñek egindako lana goraipatu du epaimahaiak. Umeei zein haien gurasoei zuzenduriko antzezlan da *Kixote*: Cervantesen eleberriko pertsonaia oinarritutako adiskide

tasun istorioa, Kixote eta Santxoren harremanari buruzkoa.

Hamazazpi sari eman dituzte aurtengo Feten sariketan. Sari nagusia La Baldufa taldearen *Pinocchio, figlio de Geppetto* antzezlanak jaso du.

Eman dituzte sanblasetako argazki lehiaketako sariak

Soraluzeko Carlos de Cosek jaso du sari nagusia

> ARGAZKIGINTZA

Carlos de Cos soraluzetarrak jaso du, bigarren urtez, San Blas eguneko argazki lehiaketako lehenengo saria. Saltzaile batek bezero bati euskal pastel txatal bat dastatzeko ematen dion unea erakusten duen argazkiak irabazi du San Blas jaietako argazki lehiaketako 400 euroko sari nagusia. Aitor Gon-

zalezek jaso du bigarren saria (250 euro), eta Elene Larrakoe- txekak herriko partaide batek egindako argazkirik onenarena (150 euro). Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, 44 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Epaimahaiakideek esan dute, lehiaketara aurkezturiko argazkien kalitatea aurreko urteetako baino handiagoa izan dela.



Saltzaileak erosleari pastela probatzen ematen dion unea agertzen du irudiak.

Gorka Herbella (1972) eta Vicente Refoyo (1970) | Areto futboleko jokalaririk | Berriz

“Taldearen batasuna eta errespetua dira benetan garrantzitsuenak”

Hirugarren Mailara igotzeko aukera du Presion Break taldeak aurtengo denboraldian

> ARETO FUTBOLA Eneko Azurmendi Noiztik jokatzen duzue areto futboleak?

Vicente Refoyo: Txikia nintzen, herriko taldean hasi nintzen. Gero Eibarrrera eta Ermura pasatu nintzen, afizionatu mailan jokatzerara, talde hau [Presion Break] sortu genuen arte, orain dela zortzi bat urte. Ordutik hona areto futboleak nabil.

Gorka Herbella: Ni ere hemen hasi nintzen, Berrizeko futbol taldean. Baina 19 urteaz Durangoko Kulturalak fitxatu ninduen, eta ordutik hona hainbat taldetan bueltaka ibili naiz: Gernikan, Barakaldon... Gero, Berrizera bueltatu nintzen, eta bertan futbola utzi egin nuen. Baina, bizitza osoan jokatzen ibili bazara, ez da hain erraza uztea. Beraz, lagun batzuk areto futboleak jokatzen hasi ginen denbora pasatzeko asmoz, eta gaur arte jarraitu dugu.

Zergatik Presion Break izena?

G.H.: Telebistako serie hori modan zegoen taldea sortu genuenean, eta protagonistak bi anaia ziren. Guk, kasualitatez, hiru anaia bikote genituen taldean, eta horregatik jarri genion izen hori. Hasieran barre egiten ziguten izenagatik, baina gero kantxan errespetua irabazi dugu.

Lagunen artean sortutako taldea izanda, egin duen bidea oso luzea da.

V.R.: Bai, luzea eta polita. Lagun kuadrilla bat izaten jarraitzen dugu, eta hori da taldearen oinarria: oso giro ona daukagu guztion artean. Batzuetan, normala den moduan, istiluren bat edo beste izaten dugu, baina txikikeriak dira. Irabazi zein galdu, taldearen batasunak eta errespetuak dute garrantzia.

G.H.: Horrela da. Hasi ginen haiekin bost jokalaririk eratzen gara; jende gehiago sartu da taldean. Baina sartzen direnekin argi dugu zein izan behar den jarrera. Taldean ez ditugu onartzen bertako giro ona apurtu, eta errespetua galtzen dituen jokalaririk.

Hirugarren Mailara igotzeko indarrekin ikusten duzue taldea?

G.H.: Gogo eta indarra ez zaizkigu inoiz falta. Hala ere, ekonomikoki garestia den gauza bat da. Federazioak traba asko jartzen dizkigu. Kategoria jakin batzuetan jokatzeke hainbat baldintza bete behar ditugu. Azken finean, eragozpenak dira bata besteari atzetik. Titulua duen entrenatzaile bat edukitzea eskatzen digute, jokalaririk ezin du taldea entrenatu. Horretaz gainera, taldea mantendu behar duzu: arbitrajeak, materiala... Udalak laguntzen digu, baina ez du denerako ematen. Iaz ere mailaz igo genuen, eta aurtengo



Goian, Herbella eta Refoyo. Behean, Presion Break A-ko taldekide guztiak.

guztia %50 gehiago ordaintzen dugu.

V.R.: Federazioak, azken finean, dirua jartzen duten klubak nahi ditu. Gure kasuan, lagun talde bat izanda, ez da horren erraza.

Nondik ateratzen duzue dirua, orduan?

G.H.: Hainbat urtetan guk jarri behar izan dugu dirua, batzuetan 50 euro, beste batzuetan 100. Pare bat urtez, txosna bat ere antolatu genuen dirua biltzeko. Beste behin, areto futboleko maratona antolatu genuen Berrizen bertan. Gabonetan zozketa bat antolatu genuen, jendeak kupoiak erosi, eta bertatik dirua lortzeko asmoz.

V.R.: Hasi ginenean, herriko taberna eta dendetan eskatzen genuen laguntza, baina, gaur egun, egoera dagoen moduan egonda, normalena ezezkoa jasotzea da.

Ligako talderik beterranoenetarikoa da zuena, ezta? Zuen adineko jokalaririk osatutako talde gutxi egongo da...

V.R.: Badaude batzuk. Durangoko Txopini baino urtebete zaharragoa da. Nik baino kategoria hobeetan jokatu du orain arte, baina hortxe jarraitzen du.

G.H.: Egia esan, gutxiengoak gara. Hainbat taldetan dago baten bat zaharragoa dena, baina gure adinagaz jokatzen jarraitzea zaila da. Ez da maila fisikoa bakarrik. Familia bat daukazu, eta horri ere denbora eskaini behar diozu. Zenbat aldiz entzun behar izan duen emaztearen errieta, uzteko eta uzteko esanez.

Askotan lesionatzen al zarete?

V.R.: Liga hau fisikoki gogorra da, baina lesioen kontua antzekoa da 30 urteaz edo 40 urteaz.

G.H.: Adibidez, 25 urte nituenetik lesioekin borrokan ibili naiz, urtean pare bat aldiz lesionatzen naiz gutxienez. Bakoitzaren gorputzaren arabera kontua dela uste dut.

Sendatzean, ordea, igarriko duzue al daketa. Ez zarete gaztetan bezala sendatuko.

V.R.: Hori horrela da. Orain ez gara lehen bezala sendatzen. Hala ere, nik zortea izan dut, eta ia inoiz ez dut lesioekin arazorik eduki. Baina, bai; orain lehen baino denbora gehiago behar duzu sendatzeko, eta, beharbada, ez zara guztiz sendatzen.

Noiz arte jarraituko duzue areto futboleak jokatzen?

G.H.: Nik, printzipioz, urtebete gehiago. Nire asmoa hori da. Baina beti gauza bera gertatzen da: urte hori egin, eta gehiago nahi duzu. “Beharbada, beste urtetxo bat luzatuko dut”, esaten diozu zeure buruari. Baina, lehen esan bezala, familia bat ere badut, bi seme ditut, eta haiekin egoteko denbora kentzen dit futbolak.

V.R.: Taldetik bota arte, edo gaizki nabilela eta taldeari laguntzeko gai ez naizela ikusten dudana arte. Nik 11 urteko seme bat dut, eta beti esan izan dut gauza bera txantxetan: talde berean jokatuko dugu biok. Seguru aski ez da horrela izango, baina, gorputzak aguantatzen duen bitartean, nik jokatzen jarraituko dut.

Mitsubishiari 90 kilo kenduta, txapelketa irabaztea helburu Tarsiciok eta Peñak

Iban Tarsiciok eta Iñigo Peñak hirugarren amaitu dute Rallysprint Txapelketako lehen lasterketa



Iban Tarsicio, Eneko Goiriena eta Iñigo Peña, sortu duten taldea aurkezteko Betixu jatetxean egindako aurkezpenean.

> AUTO LASTERKETAK J.D.

Aurtengoa denboraldi berezia da Iban Tarsiciorentzat eta Iñigo Peñarentzat. Hamar urte dira pilotu abadiñarra eta kopilotu atxondorra elkarrekin lehiatzen hasi zirenetik. Urtemuga txapel banagaz ospatu gura du-

te, eta Rallysprint Txapelketa irabaztea izango dute helburu, inoiz baino hobeto prestatutako Mitsubishi EVO IX autoagaz.

Iazko autoa dezente hobetu dute. Alde batetik, 90 kilo kendu dizkiote: “Ate guztiak fibrazkoak ipini dizkiogu, eta

kristalak plastikozkoak. Pisu hori kentzea oso inportantea da autoaren errendimendua hobetzeko”. Horretaz gainera, motor eta elektronika berria dituzte.

Momentuz, hirugarren tokian hasi dute denboraldia. Postu horretan amaitu zuten

joan zen asteburuan, Gabirian (Gipuzkoa), Rallysprint Txapelketako lehenengo lasterketan.

Hirumet Sport taldea

Tarsiciok, Peñak eta Eneko Goiriena pilotu durangarrak talde bat sortu dute aurtengo denboraldiari aurre egiteko: Hirumet Sport taldea. Indarrak batu, eta elkarri laguntzeko helburua du taldeak.

Hiru auto dituzte: Mitsubishiaren bolantean Tarsicio ibiliko da. Rallysprint Txapelketan ez ezik, Iparraldeko Kopan eta mendi igoeren txapelketan parte hartuko du. Eneko Goirienak ere txapelketa horietan parte hartzeko asmoa du, baina BMW M3 baten bolantean. Aurtan, Iñigo Peña ez da kopilotu bakarrik ibiliko; Ford Escort bategaz mendi igoeretan pilotu ere ibiliko da.

Mendi igoeretan ere goian ibiltzeko helburua du Tarsiciok. Modalitate horretan, are prestakuntza hobea izango du autoak; turboari brida kendu ahal izateko elektronika ahalbidetu diote autoari, eta horrek beste 100 zalditan gehituko du Mitsubishiaren potentzia.

Gazteenak txinpartak atera gura dizkio BMW M3ari

Eneko Goiriena lehiatzen hasteko gogoz dago

Eneko Goirienak 23 urte ditu, eta durangarra da. Auto lasterketak betidanik gustatu izan zaizkio, eta Iban Tarsiciok garajea gordeta zuen BMW autoak ireki zion atea: “Behin Tarsiciok erdi brometan esan zidan: ‘Prestatu autoa eta lehiatu zuk’. Horrela hasi zen nire abentura hau”, gogoratu du Goirienak.

Hiru urte hauetan BMWa izan du bidelagun. Aurtan arte 190 zaldiko potentzia zuen, baina aurtan 320 zaldiko indarra duen bat prestatu du. Beraz, 130 zaldi gehiago kontrolatu behar-ko ditu errepidean.

Rallysprint Txapelketan, mendi igoeretan eta, “kotxea osorik dagoen bitartean, ahal

den lehia guztietan” parte hartuko du. Rallysprintean, “lehenengo eta behin ondo pasatzea eta gozatzea” du helburu. Hori bai, “bizkor joateko eta aurrean sartzeko ahalegina” egingo du. “Ahal bada, erasoak jotzen eta lehiakideen aurretik geratzen saiatuko naiz”. Lehiakide askok baino esperientzia gutxiago izanagatik, ez zaio ausardiarik falta.

Hirumet Sport taldeagaz ilusionatuta dago: “Errepidean inor baino aurrerago amaitzea da inportanteena, baina, bestela, laguntasuna dago lehiaren gainetik”.

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

BZK taldeko zuzendaria

Debuta

Azkenik ere, heldu zen pasa den domeka, eta baita debutatzeko eguna ere; nahiz eta neskekin ez izan, hara joan ginen mutilekin ekinean egitera! Taldeko sei euskaldunekin eta Gaztela eta Leongo neskekin joan ginen, ilusioz, gogoz, bel- durrez, urduri eta, garrantzi- tsuena, entrenatzeko gogoz!

Lehenengo aldia zen UCI talde bat eskuartean nuena, eta burua hotz izatea egokitzen zitzaidan. Niretzat emozio asko egon ziren tartean... Batez ere, lehiaketara joan ginenean, denek esan zidaten gauza bera: “Ez zara animatzen berriz ere lasterketetan hastera? Zeure sua eta borrokatzeko gaitasuna erakustera? Baina, benetan, ez dut neure burua bizikleta gainean ikusten. Orain, nire lana gaztetxoei laguntzea eta *ofizioa* zelakoa den erakustea da.

Lasterketan gindoazela, pentsatu nuen: Non dute neska hauek lasterketaren irakurketa zorrotza egiteko gaitasuna? Haien abilezia? Baina, bat-batean, stop! Erakutsi egin behar diet! Hori da behar dutena... Gaztetxoak dira, eta lagundu egin behar zaie! Horretan ibili ginen lasterketa osoan. Eta ez hori bakarrik; mutilei aurre egiten ere saiatu ginen! Kar-kar-kar! Baina hoberena etortzeaz zegoen... Gutxien espero genuenak sorpresa eman zigun! Horrek ere asko pentsarazi dit. Nik bizitako guztia oraindik ezin diet irakatsi, oso gazteak baitira. Gure taldea UCI talde bat da, baina gaztetxoa eta umila da. Inurrien pare lanean segi, eta seguru susto bat baino gehiago emango dugula. Aupa gure neskak!

Asto probak, gaurtik domekara, Mallabian

> ASTO PROBAK

Mallabian pisu neurtuko asto proben zortzigarren sariketa jokatu dute gaurtik domekara. Udalak antolatu du, eta, Txondor taldeak lagunduta, hiru egunetan hamabi asto lanean ikusteko aukera egongo da.

Gaur, 21:00etan, Maiora, Zengotitagane, Lobene eta Janire

Alegria lehiatuko dira; zapa- tuan, 21:00etatik aurrera, Ira- zola, Ugalde, Karmelo eta Ta- berna Zaharra; eta, domekan, 18:00etan, Satxibarren, Miren Olaberriaren, Alegriaren eta Egiaren astoak. Irabazleak 390 euro, manta eta txapela jasoko ditu; bigarrenak 330 euro, eta hirugarrenak 270 euro.

FIFAk jokatzeko baimena eman dio Flavian Ilciri

Sei hilabete eta gero, jokatzan hasi da gaztea

> FUTBOLA

FIFAk nazioarteko jokalaria gazteen fitxaketak mugatzeko duen legedia dela medio, Amorebieta futbol taldeko kadeteekin partidu ofizialik jokatu ezinda egon da Flavian Ilci. Kasu honek ez duela inolako legerik hausten

frogatu ostean, joan zen bari- kuan jaso zuen klubak jokala- riaren fitxa. Zapatuan 15 urte bete zituen, eta domekan heldu zitzaion oparirik onena: etxean, Txolon zelaian, titular jokatu zuen partidu osoa, Loiola Indau- txu taldearen kontra.

Ilicigaz gertatu zaienak ikas- teko balioko dio klubari. Haur- kategoriako taldean afrikar jatorria duen gazte batek jokatzen du, eta umetatik Euskal Herrian bizi da; gurasoak lan kontuengatik etorri ziren hona. Irailera arte itxaron beharrean, badaezpada, hilabete batzuk lehenago hasiko dituzte fitxaren tramiteak, Ilciren kasua errepika- tu ez dadin. “Gure jokalaria jasan duen egoera beste inork ez sufritzea espero dugu”, adierazi dute klubeko ordezkariak.

UDALEKU FINKOAK

Ozaeta

Uztailaren 1etik 12ra
LH5 eta LH6koak
280€



Mendigorrria

Uztailaren 5etik 16ra
LH3 eta LH4koak
280€



UDALEKU IBILTARIAK

Deba-Orio

Ekainaren 27tik uztailaren 8ra
DBH1 eta DBH2koak
280€



Zumaia-Mundaka

Uztailaren 10etik 24ra
DBH3 eta DBH4koak
290€



UDALEKU IREKIAK

udan olgetan 2015

1. astea: **BAGA**

(Ekainak 22- 26)
Su baten bueltan dantzan
ari garen talde bat gara.

2. astea: **BIGA**

(Ekainak 29 - uztailak 3)
Eki eta ilargi.
Egunaren bi aurpegi gara.

3. astea: **HIGA**

(Uztailak 6 - 10)
Hiru belaunaldiren
ondorengo irribarrea gara.

4. astea: **LAGA**

(Uztailak 13 - 17)
Euskal Herrian lau katu
baino gehiago gara.

5. astea: **BOGA**

(Uztailak 20 - 24)
Etorkizunaren jabe diren
eskuko bost atzamarrak gara

Prezioak

1 aste: 80€
2 aste: 120€
3 aste: 165€
4 aste: 210€
5 aste: 255€
jantokia: 36€ asteko

*Ordutegia: 9:00etatik 13:30etara



gozatu olgetan euskaraz berbetan

Izena emateko epea, martxoaren 9tik apirilaren 30era
Berbaro Elkartean; Pinondo plaza 1, 1.solairua /
946 202 540 www.berbaro.eus / aisialdia@berbaro.eus
(aurretik plazak betetzen badira, izen ematea itxi egingo da)

HOBARIAK:
%10eko hobaria Berbaroko bazkideei
%5eko hobaria 2 neba arreba badira
%10eko hobaria 3 neba arreba badira



DRTri orain arteko lana errematatzea falta zaio igoera fasera sailkatzeko

Lau partiduan zortzi puntu batuta, bigarren toki ziurtatuko luke



Durango Rugby Taldearen aurtengo talde nagusia. Ainara Petite

> ERRUGBIA Joseba Derteano Ligako azken txanpan orain arteko errendimenduari eusten badio, Durango Rugby Taldeak Ohorezko Mailara igotzeko igoera fasea jokatu du aurtun. Talde bi sailkatuko dira, eta DRT bigarren dago. Aurretik geratzen zaizkion lau partiduetan zortzi puntu lortu behar ditu igoera fasea ziurtatzeko.

Lehenengo urratsa domeka honetan eman dezake; 12:00etatik aurrera A Coruña taldearen

aurka jokatu du Arripausuetan. Lehen itzulian 0-14 irabazi zuten durangarrek.

Ines Etxegibel entrenatzailearen ustez, partiduen gakoak joko "bizi eta arinean" egongo da: "Aurreko lerroak lan ona egin beharko du, atzeko lerroak bizi jokatzeko aukera izan dezan. Hori da gure erronka partidu honetan zein liga guztian".

DRT goi mailako denboraldia osatzen dabil. Hamabost partidu irabazi, bat berdindu eta

bi galdu ditu. Antxon Iriondo da multzo horretan entsegurik gehien –hamabost– lortu dituen jokalaria. Gainera, gainontzeko arerio ia guztiek baino partidu bat gutxiago jokatu du taldeak; elurraren ondorioz, Burgosen kontra atzeratu zutena martxoaren 22an jokatu du.

"Eguneroko lana da" dinamika on horren gakoak. "Ez dago beste misteriorik. Jokalarien aldetik konpromiso handia dago, eta eurak dira protagonistak".

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Somorrostro

· Domekan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Elorrio - Sondika

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Begoña

· Zapatuan, 16:15ean, Astolan.

Zaldia - Galea

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Bermeo B

· Domekan, 17:00etan, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Zorrotzako - San Antonio

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

Amorebieta B - Montefuerte

· Domekan, 16:00etan, Txolonen.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Ariz

· Domekan, 18:00etan, Eleizalden.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Inter Gipuzkoa

· Zapatuan, 18:15ean, Durangoko Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Abadiño Gaztetxe - Bigoki

· Zapatuan, 17:00etan, Matienan.

> SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - AtleticoSS

· Zapatuan, 19:00etan, Durangon.

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Burlada

· Domekan, 12:00etan, Durangon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baqué - Askartza

· Zapatuan, 12:45ean, Durangon.

Zornotza - Getxoasko

· Domekan, 20:00etan, Zornotzan.

LEHEN ERREGIONALA

Julza Zaldia - Bidegintza

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Zornotza - Barrena Berri

· Zapatuan, 18:00etan, Zornotzan.

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Zornotza - Gordexola

· Domekan, 18:00etan, Zornotzan.

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Etxebarria-Aizpitarte / Ugalde-Mateo

- Elordi-Imaz / Larrañaga-Martinez

· Eguenean, 21:15ean, Mallabian.

- Elordi-Imaz / Larrañaga-Martinez

· Eguenean, 21:15ean, Mallabian.

- Elordi-Imaz / Larrañaga-Martinez

· Eguenean, 21:15ean, Mallabian.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

DRT - A Coruña

· Domekan, 12:00etan, Durangon.

Aurkitu zure izarra Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangalde erdi-erdian, geure bezeroei hurrengo zerbitzuak eskaintzen daramagu:

- Ibilgailu berriak, autoak eta furgonetak
- Bigarren eskuko ibilgailuak
- Mekanikan eta karrozerian osoko tailer-zerbitzua, auto, furgoneta eta kamioiak



AGUINAGA TALDEA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es · www.aguinaga.es

Borja Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47





ZER DA ANBOTO?

Durangaldean barikuro banatzen den euskara hutsezko astekaria da ANBOTO. 2001ean sortu zen, Durangaldeko euskara elkarten ekimenez, eta asteen 11.000 ale banatzen ditu.

HARPIDETZA

Harpidedun egiteko honako 4 aukera hauek dituzu:

www.anboto.org

946 816 558

anboto@anboto.org

Bixente Kapanaga, 9 48215 IURRETA

IZENA

ABIZENAK

HELBIDEA

E-MAILA

HERRIA

TELEFONOA

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO

ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

- BERRIZ: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Jantzi gabe. Garajea eta trastelekua. Berria, estreinatzeko.
- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500 euro hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 125.000€.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 140.000 -tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Eremu onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoa kanpora begira dago. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia bi familiako etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- EUBA: Bi familiako etxebizitza eraikitzeko lursaila. 3.000 m2 gutxi gorabehera.
- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Inguru ikusgarria.
- MENDATA: Lamikiz auzoa. Bi familiako etxebizitza eraikitzeko. Kokapen egokia. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzeko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

FRAI JUAN ZUMARRAGA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoi 2. Berogailua. Igogailua. Ganbara. 225.000€.

MURUETATORRE



- 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Balkoia. Garajea eta ganbara. 219.000€.

ASKATASUN ETORBIDEA



- Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Iturgintza eta elektrizitate instalazio berriak. Hari musikala etxe osoan. Teilatua, fatxada eta igogailua eginda ditu. 210.000€.

SAN MARTIN ATARIA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoi 2. Etxe osoa kanpora begira dago. Ikuspegi ederrak. Igogailua. 185.000€. PREZIO NEGOZIAGARRIA

ERRETENTXU



- 73,43 m2. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna, bainugela eta esekitokia. Berogailua. Igogailua. 160.000€. PREZIO NEGOZIAGARRIA.

SAN FAUSTO



- Berriztua. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas naturaleko berogailua. 88.000€.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2-4 logela eta komun 2.
- ANDRA MARIA: Halla, egongela, sukaldea, 1-2 logela eta komuna.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komuna.
- ARKOTXA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3-4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 3 komun. Terraza. Trastelekua.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
- JUAN ITZIARKO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursaila.
- JUAN ITZIARKO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

MAÑARIA

- EVARISTO BUSTINTZA: Berrizteko. Trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza eta balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MAÑARIA: 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Trastelekua.

BEDIA

- ELEXALDE: 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Balkoia. Garajea.
- Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

ETXEBIZITZAK SALGAI

ERDIGUNEAN




- Etxebizitza altua. 3 logela, komuna eta egongela handia balkoiarekin. Eguzkitsua. **Berriztua. 195.000€.**

AGIRRE LEHENDAKARIA



- 90 m2. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. 259.500€.

MATIENA



- Etxebizitza polita. Logela 2 (lehen 3 logela), komuna eta sukalde-egongela. Eguzkitsua. 110.000€.

SAN FRANTZISKO



- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoi 2. Eguzkitsua. Bizitzaren sartzeko moduan. 179.000€.

BERRIZ



- Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. 128.000€.

MIKELDI



- 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Terraza 2. 174.000€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

APEN Nº 1473

INMOBILIARIA

ETXELAN

NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO
946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com
www.inmobiliariaetxelan.com

SALGAI

• ELORRIO
REF.499 . 70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, sukalde amerikarra. 155.000€.
TABERNA BI SALGAI. KONTSULTATU.
REF. 579. 200 m2-ko etxea eta 1.700 m2 inguruko lursaila. 390.600€.
REF.582. 76 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 93.300€.
REF. 472. 65 m2-ko PISU BERRIA, logela 2, bainugela 2, sukalde amerikarra. 132.000€.
REF. 547. 50 m2-ko apartamentua, logela 1 eta bainugela. 154.500€.
REF.474. Pisua. 95 m2. 3 logela. Bainugela 2. Garajea
Lokalak, dimentsioak: 250 m2, 170 m2, 140 m2, 121 m2, 101 m2, 62,5 m2 eta 105 m2.
REF. 473. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 161.000€.
REF. 407. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. Garaje itxia barne. 148.600€.
REF.550. 95 m2-ko pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 185.300€.
REF. 565.- 75 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 125.000€.
REF. 568.- 115 m2-ko pisua, 4 logela, 2 bainugela. 40 m2-ko trastelekua 155.000€.
Lursailak: Unifamiliarra eraikitzeko eta bifamiliarra eraikitzeko. 230.000€ / 330.000€.
BI LOGELAKO ETXEBIZITZA. 60.000€.
70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 40 m2-ko trastelekua. 84.000€.

• ATXONDO
REF.495. Pisua. 95 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Garaje itxia (prezioan ez dago barne) 200.000€.
REF.469. Adosatua. 200 m2. 5 logela, 4 bainugela, egongela-sukaldea, terraza-lorategi. 2 garaje. Kontsultatu.
Ref.428. Baserria. 383 m2, 3 logela, bainugela, egongela-sukaldea. Lursaila. 385.000€.
Ref.427. Baserria. 900 m2, 9 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea. Lusaila. Kontsultatu.
Ref.333. Pisua. 75 m2, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea. 180.000€.

• ABADIÑO
Txaleta, 4 gela, 2 bainugela, sukaldea, egongela. Berri-berri dago. 570.000€.
Ref.372. 83 m2-ko pisua, 3 gela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. 246.000€.
Ref.325. Pisua, 90 m2, 3 gela, bainugela 2, sukaldea eta egongela. 105.000€.

• BERRIZ
Ref. 393. Pisua, 80 m2, logela 2, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia. 162.000€.
60 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela, egongela, sukaldea. 126.000€.
Ref. 401. Pisu ia berria, 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. 204.000€.
Lursailak: 4 lursail salgai, eraikitzeko aukerarekin.
REF. 540.- TXALET BERRIA 1.200 m2-KO LURSAILEAN ERAIKIA. 600.000.
Ref.373. 68 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela, sukaldea. Aukera paregabea.

• ZALDIBAR
Ref. 378. 90 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. 158.000€.
Ref. 391. Pisua, 70 m2, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela. 125.000€.
Ref. 392. Pisua, 75 m2, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela. 150.000€.
REF. 570. Pisua, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela eta garajea. 159.000€.

Sartu gure webgunean
www.inmobiliariaetxelan.com

anboto.iragarki**labur**rak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALDU

Bilbo. 76 m2 erabilgarri. Kalitate onekoa. Egurra. Guztiz berriztuta. Garajea aukeran. bilbosalgai@gmail.com

ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Zaldibarren pisua alokatzen da. Hiru logela, sukaldea, komuna, egongela, bi balkoi, igogailua eta berogailua. Guztiz hornitua. Tel.: 617-61 44 90.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Durango. Pisukide bila nabil. Etxabe argitsua da, terraza bi ditu. Bi komun. Tabira auzoan dago. Tel.: 637-29 24 65.

GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

Durango. Plateruen plazan garaje bat salgai. 28.000 euro. Prezio negoziagarria. Tel.: 619-41 09 19.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Berrizen pabiloi bat alokatzen da. Solairu bi ditu, 330 m2 solairu bakoitzean. Argiarekin eta urarekin. Bide ertzean eta autopistako sarreratik bost minutura. Tel.: 616-17 71 91.

Durango. Durango erdian, garaje bat alokagai Plateruen plazan. Tel.: 656-78 02 15.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska euskalduna zerbitzari lanetan aritzeko prest, bai aste barruan, bai asteburuan. Tel.: 661-38 31 65.

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia eginak dituen neska gazte euskalduna goizetan haurrak zaintzeko edota esnatu, gosaria eman eta eskolara eramateko prest. Esperientziaduna. Interesa baduzu,

deitu. Tel.: 688-64 06 04.

Durangaldea. Neska euskalduna, Haur Hezkuntzan graduatua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Te.: 661-38 31 65.

Durangaldea. Lan bila nabil, barneko edo eguneko langile gisa, pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketan. Orduka eta asteburuetan ere jarduten dut. Erreferentziekin. Tel.: 618-81 47 55.

Durangaldea. Lan bila nabil, barneko langile gisa pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Asteburuetan ere lan egingo nuke. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 630-00 34 22.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Esperientziarekin. Erreferentziekin. Tel.: 686-90 81 24.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka edo lanaldi erdian. Tel.: 632-32 28 14.

Durangaldea. Lan bila dabilen neska bat naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, barneko eta eguneko langile gisa. Tel.: 632-42 16 85.

Durangaldea. Lan bila dabilen neska bat naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, barneko eta eguneko langile gisa. Tel.: 631-66 43 93.

Durangaldea. Lan bila dabilen neska bat naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, barneko eta eguneko langile gisa. Tel.: 633-91 50 17.

Durangaldea. Lan bila dabilen neska bat naiz. Garbiketan (tabernak, etxeak...) eta pertsonak zaintzen lan egiteko prest. Tel.: 620-35 43 66.

Durangaldea. Lan egiteko beharra dut. Umeak edota nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Barneko langile gisa. Esperientzia daukat. Tel.: 687-08 17 01 / 602-12 22 45.

Durangaldea. Lan egiteko beharra dut. Umeak edota nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Barneko langile gisa. Esperientzia daukat. Tel.: 687-08 17 01 / 602-12 22 45.

Durangaldea. Neska gazte esperientziaduna lan bila dabil, pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketan. Lanaldi osoan edo erdian. Orduka. Erreferentziekin. Tel.: 631-28 71 29.

Durangaldea. Lan egiteko prest nago, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Orduka, arratsaldetan edo barneko langile gisa. Tel.: 722-56 22 41.

Durangaldea. Tituludun eta esperientzia duen neska euskalduna, oso arduratsua, haurrak zaintzeko prest. Tel.: 662-36 41 67 / 94 681 39 40.

IRAKASKUNTZA

Durango. Eskola partikularrak emateko prest. Euskaraz zein gazteleraz. Zientzietako irakasgai guztiak. LH, DBH eta batxilergoa. Tel.: 680 581 215.

Durangaldea. Neska euskaldun bat naiz, Haur Hezkuntzan graduatua. Lehen Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak ematen bi urteko esperientzia dut. Eskola partikularrak emateko prest nago, eta baita haurrak zaintzeko ere. Tel.: 661-38 31 65.

Durangaldea. Gazte iurretarra, Gizarte Hezitzailea eta Haur Hezitzailea, arratsaldeetan Haur Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko eta etxeko lanak egiten laguntzeko prest. Goizetan umeak eskolara eramateko prest. Tel.: 634-41 93 85.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Abadiño. Abadinoko taberna batean sukaldaria behar da. Kartan eta menuetan esperientzia edukitzea baloratuko da. Tel.: 660-187 405 / 645-729 362. aitziber.urizar@yahoo.es.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Durangoko 3 eta 1 urte bitarteko umeak zaintzeko pertsona euskaldun eta arduratsu baten bila gabiltza. Euskaraz eta ingelesez egitea gurako genuke. Astean 2 orduz, eskolako oporraldietarako, gaixorik dagoenerako eta ordu solteka.

Tel.: 661-29 74 63.

Elorrio. Durangaldeko enpresa bat gara. Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu: etxeko lanak, telelaguntza, adinekoen zaintza etxean zein ospitalean, irakurketak eta abar. Gure langileek aseguratua zaudete, 300.000 mila euro poliza bitartez Bizkai osoan, Bergaran eta Arrasaten egin izan dugu lan. Orduategi malgua, eta talde profesionala. Gure langileak gizarte segurantzaren izen emanda daude. Tel.: 690-28 60 71. karmelomimixu@yahoo.es.

GAINERAKOAK

Durango. Ile apaintzailea, neska zein mutila, behar dugu Durangon; mesedez, bidali curriculumak helbide elektronikoa honetara: hormaetxeane@gmail.com.

Ibilgailuak

BESTE IBILGAILUAK

SALDU

Bizikleta eliptikoa saltzen dut. Oso merke. Tel.: 652-72 39 27.

Aisia - kirola

KIROLAK

SALDU

Mendiko bizikleta MTB. GT Karakoram 29 mendiko bizikleta (MTB). M neurrikoa, 29 hazbeteko gurpilak, adarrak, kilometro-zenbatzailea, pedal mistoak... Erdi berria da. Hasiberrientzat oso aproposa. Ikusi nahi duenak lurretako Undarri Bike bizikleta-dendan du aukera. Tel.: 686-21 49 64. gaizka.olabarri@gmail.com.

Familia - etxea

HAURREN TXOKOA

SALDU

Minnen haurrentzako ohen salgai. Ikeako Minnen ohe metaliko zuria salgai. 80 cm-ko zabalera eta 130-165-200 cm-ko luzera izan dezake. Egurrezko laminadun somierra barne, koltxoirik gabe, 135 cm-tako neurrirra egindako hiru azpiko maindire eta babesgarri bat opari. Tel.: 686-42 52 95 (deiak eta whatsappk).



- HEKi -
HERRI KIROL KLUBA
- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

**Umeentzako eta nagusientzako
erakustaldiak eta antolaketa**



AGENDA

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 6an, 21:00etan, Zornotza Aretoan

Little Gem

Elaine Murphy irlandarraren antzezlanaren inguruan EM2 antzerki talde galiziarrek egindako moldaketa da gaur, Zornotzan, ikusgai izango dena. Edinburgoko (Eskozia) Fringe antzerki jaialdian saria jaso zuen. Hiru belaunalditako hiru emakume dira protagonista, eta sexua eta maitasuna ditu berbagai, besteak beste.

Musika

:: DURANGO

MARTXOAREN 6an

22:00etan, Osso + Tutan Come On + Joseba B. Lenoir Duo, Plateruenean.

MARTXOAREN 7an

22:30etan, Ray Fernández, Plateruenean.

MARTXOAREN 13an

18:30etan, Euskal Assault metal jaialdia, Plateruenean: Benediction + Suicidal Angels + Dr. Living Dead + Criminal + Aposento + Infest + Bullets of Minsery.

MARTXOAREN 14an

18:30etan, Euskal Assault metal jaialdia, Plateruenean: Asphyx + God Dethroned + Dew Scented + Avulsed + Nashgul + Ras + A.D.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 6an

22:30etan, Tooth + Sacco, gaztetxean.

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 7an

19:00etan, Abesbatzen trukea, San Joan Bautista elizan: Pispillu (Ermua) + Olague (Sondika) + Kantalai (Zornotza).

Berbaldia

:: DURANGO

MARTXOAREN 11n

16:30etan, Joakin Rueda, grafologiari buruz, Behargintzan.

Zinema

:: BERRIZ

MARTXOAREN 7an (22:00etan) eta MARTXOAREN 8an (19:00etan)

‘La isla mínima’, Kultur Etxean.

MARTXOAREN 11n

20:00etan, Koaderno Handia, Kultur Etxean.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 11n

19:30etan, ‘The good son’, Iturri kultur etxean.

Dantza

:: DURANGO

MARTXOAREN 7an

18:00etan, Andaluziaren Eguneko dantza alardea, San Agustin kulturgunean.

Antzerkia

:: BERRIZ

MARTXOAREN 7an

20:00etan, ‘Mucho ruido y pocas nueces’, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 12an

20:00etan, Amodioaren ziega, San Agustinen.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 6an

22:00etan, ‘Mucho ruido y pocas nueces’, Arriolan.

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 6an

21:00etan, ‘Little Gem’, Zornotza Aretoan.

MARTXOAREN 13an

21:00etan, Txapeldun, Zornotza Aretoan.

Lehiaketa

:: ABADIÑO

MARTXOAREN 31ra arte

San Prudentzio eta San Trokaz jaietako kartel lehiaketa. Udal Mediatekan zein Errotan aurkeztu daitezke lanak. Informazioa: ‘www.abadiño.org’.

:: DURANGO

APIRILAREN 24ra arte

Julene Azpeitia literatur lehiaketa. Posta arruntez zein elektronikoz bidali daitezke lanak lehiaketara. Informazio gehiago: ‘www.durango-euskaraz.net’

Erakusketa

:: DURANGO

MARTXOAREN 8ra arte

‘Elecciones afectivas (Expediente I/B)’ erakusketa kolektiboa, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 13ra arte

Argazkigintza dokumental erakusketa: ‘Emakumea lanean’, Iturri kultur etxean.

Kontalaria

:: ELORRIO

MARTXOAREN 13an

17:00etan, Bego Alabazan kontalariaren ‘Ah! Zelako neskak!’ umeentzako saioa, liburutegian.

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 12an

19:00etan, Cecilia Paganini ipuin kontalariaren helduentzako saioa: ‘En la boca del lobo’, liburutegian.

Bertsoak

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 13an

19:00etan, Korrika Kulturala: bertso-triki poteoa, Eta Abar bertso eskolakoekin, herriko kaleetan zehar.

Maratoia

:: ZALDIBAR

MARTXOAREN 8an

11:00etatik 13:00etara, emakumeen ‘spinning’ maratoia. Izen-ematea: udaletxean edo ‘eguen@zaldibar.org’ helbide elektronikoan. Egunean bertan lekua badago ere, parte hartzea zabalik.

MARTXOKO AGENDA

6

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
BULARRETIK MINTZORA
17:00 Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko gelakoak.
18:00 Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak.

IURRETAKO UDALA
MARTXOAK 8
19:00 Adierazpen instituzionala - Irakurketa.
Ondoren, ‘Iurretako emakumeak atzo eta gaur’ dokumentala.

7

IURRETAKO KIROL TALDEA - Futbola
17:00 IURRETAKO A - SORROMOSTRO Larrakozelaian.
ANDEREBIDE IURRETAKO EMAKUMEEN ELKARTEA
MARTXOAK 8
20:45 Bidebarrietan autobusa. **21:30** Emakumeen afaria Goiurin. Ondoren, dantza.

8

IURRETAKO UDALA F.J. Askondo kalea
MARTXOAK 8
12:00 ‘Gu be bai runners Iurretak’. Dinamizatzailea: Irati Garcia.

9

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
17:00 (8-9 urte) Haurren irakurketa kluba.
18:00 (9-10 urte) Haurren irakurketa kluba.

10

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
18:30 Irakurleen kluba. Dinamizatzailea: Isa Castillo. Gaztelaniaz.

11

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
18:30 Irakurleen txokoa. Dinamizatzailea: Isa Castillo. Euskaraz.

12

ZALDAI MENDI TALDEA - Ibarretxe kultur etxea
19:00 2015. urteko asanblada bazkide eta herritarrentzat.

:: DURANGO | ZUGAZA

La mujer de negro 2

• **barikua 6:** 19:30
• **zapatua 7:** 19:30
• **domeka 8:** 21:30
• **astelehena 9:** 21:00

Samba

• **barikua 6:** 22:00
• **zapatua 7:** 22:30
• **domeka 8:** 19:00
• **astelehena 9:** 18:30
• **martitzena 10:** 20:00

El libro de la vida

• **zapatua 7:** 17:00
• **domeka 8:** 16:30

2. ARETOA

Fuerza mayor

• **barikua 6:** 19:30
• **zapatua 7:** 22:30
• **domeka 8:** 21:00
• **astelehena 9:** 18:30

No confies en nadie

• **barikua 6:** 22:00
• **zapatua 7:** 20:00
• **domeka 8:** 19:00

Paso a paso (euskaraz)

• **zapatua 7:** 16:30/18:00
• **domeka 8:** 16:30/17:45

:: ELORRIO | ARRIOLA

Luna de Brasil

• **zapatua 7:** 22:30
• **domeka 8:** 20:00
• **astelehena 9:** 20:00

Dragon Ball Z: Jainkoen bataila

• **domeka 8:** 17:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

El francotirador

• **zapatua 7:** 23:00
• **domeka 8:** 20:00
• **astelehena 9:** 20:15

Paso a paso

• **domeka 8:** 17:00

Mommy

• **martitzena 10:** 20:00

Denborapasak

1

	8	4	6					
			2				3	
			5			7		
1				8		5		
2								6
6	4			1		8	3	
				9		7		
		6				2		
		3	5		4	1		

2

		7	4		6			
				5	9		2	
8			7			1		
	6				1		4	
	9						7	
				3	1			
7		4					8	
			6		2			
		1	8				4	

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea



> Atzo, martxoak 5, **Luis M. Ugaldeak** bere eguna ospatu zuen: familia osoaren partez zorionak. Zapatuen danon artean ospatuko dogu. Besarkada handi bat!



> Zu bai lora ederra lora artien! Zorixonak **Maribi** familixa guztixan partez. Mosu handi gozuak!



> Otsailaren 23an gure etxeko lehoitxoak 3 urte bete zituen. Belarritik tirakada handi bat etxeko guztien partez, batez ere bere arrebaren partez. Muxu handi bat mutil handi!



> Martxoaren 11n **Marisaren** urtegune izengo da. Zorixonak eta egun polit bat euki daixule! Mosu haundi bat!



> Atzo, martxoak 5, **Josetxoren** urteak izan ziren. Zorionak zure emaztearen eta semearen partez! Egun ederra pasau izana espero dogu!



> Martxoaren 4an **Elene Ugaldea Arteagak** 13 urte bete zituen. Etxeko neskatila kirolari, alai eta jatorrari, zorixonak familia osoaren partez. Musu handi bat!



Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Zorionak **Jon Basabe!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 6 - 09:00-09:00
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
22:00-09:00
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
ZAPATUA, 7 - 09:00-09:00
• **Navarro** (Arteakalea 6 - Durango)
09:00-13:30
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
• **Bartolome** (Gabiola 2 - Berriz)
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
22:00-09:00
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
DOMEKA, 8 - 09:00-09:00
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
22:00-09:00
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
ASTELEHENA, 9 - 09:00-09:00
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
MARTITZENA, 10 - 09:00-09:00
• **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUAZTENA, 11 - 09:00-09:00
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUENA, 12 - 09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **946 810 949**
Osakidetza **946 007 200**
Ertzaintza **944 669 300**

> GARRAIOAK

Euskotren **902 543 210**
Bizkaibus **944 484 080**
Pesa **902 101 210**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño **946 814 470**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **946 811 001**
Elorrio Geltokia **946 820 040**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
Iurreta
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> UDALAK

Abadiño **946 215 530**
Atxondo **946 821 009**
Berriz **946 824 584**
Durango **946 030 000**
Elorrio **946 582 712**
Garai **946 816 393**
Iurreta **946 201 200**
Izurtza **946 813 548**
Mallabia **943 171 461**
Mañaria **946 818 998**
Otxandio **945 450 020**
Zaldibar **946 827 016**

> UDALTZAINGOA

Abadiño **946 215 533**
Berriz **946 824 036**
Durango **946 030 000**
Elorrio **946 820 218**
Iurreta **946 200 888**

-1°

18°

ZAPATUA

1°

17°

DOMEKA

2°

18°

ASTELEHENA

3°

16°

MARTITZENA

SUDOKUEN SOLUZIOAK

6	4	2	5	7	8	1	3	9
1	3	7	2	4	9	5	8	6
9	8	5	6	1	3	4	2	7
5	9	8	1	3	6	7	2	4
7	2	3	4	9	5	8	6	1
4	6	1	7	8	2	3	9	5
3	1	4	9	2	7	6	5	8
2	7	6	8	5	1	9	4	3
8	5	9	3	6	4	7	1	2

2

6	1	4	9	5	8	3	2	7
5	2	3	4	7	1	9	6	8
8	7	9	2	6	3	5	4	1
3	8	6	1	2	7	5	4	9
9	4	1	5	3	6	8	7	2
7	5	2	8	9	4	6	3	1
4	9	7	3	8	5	2	1	6
1	3	8	6	4	2	7	9	5
2	6	5	7	1	9	4	8	3

1

Marisa Baqué Delas | Kafe dastatzailea | Durango, 1964

***“Kafea ez da zaletasun bat bakarrik,
bizitzeko modu bat da”***

Marisa Baquek txapela jantzi du Espainiako Kafe Dastatze Txapelketan, eta Munduko Txapelketan izango da

> AKUILUA Martxel Zubia
La Tostadora kafe markako nagusia da, duela hamar bat urtetik, Marisa Baqué. Espainiako Kafe Dastatze Txapelketa irabazi berri du, eta ekainean Munduko Txapelketan izango da. Baqué familiakoa izanda, bizitza osoa darama kafearen usaina arnasten.

Noiztik datorkizu kafeareki-ko zaletasuna?

Egia esan, ez da zaletasun bat, bizitzeko modu bat baikik. Txikitatik, nire aitak enpresa sortu zuenetik, kafeagaz jolasean ibili izan naiz; kafe zakuekin jolasten nintzen, eta horregatik esaten dut kafeina dudala zainetan. Oso lotuta nago kafearen munduagaz; gaztetan, sasoi batean, galduta ez nibilen ikasketetan, ez nekien nondik nora jo, eta horregatik sartu nintzen zeharo kafearen munduan; gure aitak, garai horretan bertan, Kalitate Sail bat egiteko aukera eman zidan Cafés Baquen. Ospe handia izatera heldu ginen, kalitate kontrolen ondorioz, baina gero, aita hiltzean, La Tostadora kafe markagaz jarraitzea erabaki nuen. Kalitate kontrolak egiten jarraitu nuen, baina bigarren marka horregaz.

**Durangokoaz gainera, badau-
kazue beste dendarik ingu-
ruan?**

Ez, Durangalde inguruan ez daukagu beste dendarik. Hurbilen daukagun denda Bilbokoa da. Gure zerbitzuak ostalaritzara zuzenduta daude, eta

dagoeneko baditugu bezero gar-
rantzitsu batzuk, baina gure
helburua hazten jarraitzea da,
eta horretan gabilta, pixkana-
ka-pixkanaka hazten, baina be-
ti kalitate kontrolak eginez.

Duela bi aste inguru Espainia-ko Kafe Dastatze Txapelketa irabazi zenuen. Txapelketa horren nondik norakoak azaldu ahal dituzu?

Zortzi minutuan zortzi talde jartzen dizkizute, eta talde bakoitzean hiru kafe kikara. Talde bakoitzean dauden hiru kikaretatik zein kikara den desberbina asmatu behar duzu. Horrela esanda, nahiko erreza ematen du, baina ez da horrela. Kafeak nahiko berdintsuak izaten dira, finalean kafe berdina suertatu zitzaidan, lursail berekoa, baina altuera desberdinean landatua, eta hori antzema-tea oso zaila da. Gehien asmatzen dituenak irabazten du, eta, berdinketa gertatuz gero, denbora gutxienean egin duenak.

Zenbat kafe dastatzaile egon zineten Santanderreko finalean?

Guztira, hamalau bat partaide elkartu ginen. Lehenengo probatik sei onenak sailkatu ziren finalaurrekoetara, eta finalaurrekoetako hiru onenak joan ziren finalera. Munduko Txapelketan, ordea, 40 bat partaide izango gara, eta hor zailagoa izango da irabaztea.

Ekainean Munduko Txapelketara joango zara Espainiaren ordezkari; nolako aurreikuspenak dituzu txapelketaren inguruan?

Nahiko aurreikuspen onak ditut, esperientzia handia hartu dudalako urte hauetan guztietan. Oso zaila izango da irabaztea, lehen esan dudan bezala, 40 partaide bilduko garelako, baina urte asko daramatzat kafea dastatzen, eta horrek irabaztera joateko gogo gehiago ematen dit, prestakuntza ona daukadalako.

Zein markakoa da probatu duzun kaferik onena?

La Tostadora markakoa da probatu dudana kaferik onena, nola ez. Proiektu honetan sinisten dugu, eta asko zaintzen ditugu gure kalitate kontrolak, hori delako gure helburua, kalitatea zaindu, eta apurka-apurka haztea.

Aurten Duranguesa txirrindulari elkarteko gazteen taldea babestuko du La Tostadorak. Zer iritzi duzu proiektu horren inguruan? Zergatik babestu duzue txirrindularitza talde bat?

Gure aita kirolari amorratua zen, eta kirol harrobia bultzatzea gustatzen zitzaion, kirola edozein zela ere. Bultzatzaile sutua zen, eta, orain, merkatuan daukagun presentzia aprobetxatuta, kirol talde hau babestea erabaki dugu. Talde hau babestuko dugu, uste dugulako gure aitak egiten zuena ona zela kirolarentzat, eta haren pausoei jarraitzea erabaki dugu.

LAUHORTZA

**JON
ARTZA**

Soziologia



Martxoaren 8a

Kasualitate bat tarteko, Martxoaren 8ko asteburuan iritzi artikulua argitaratzea tokatu zait. Beti nahi izan diot gaiari heldu, baina, egia esan behar badut, ez dut jakin izan nola. Esaten da berdintasunean asko aurreratu dela. Nik uste dut prestakuntza bai parekatu dela. Are gehiago, nire ikasle garaiari erreparatuz gero, oro har, emakumeek maila altuagoa zutela ere esango nuke. Baina prestakuntzan aurrera egiteak ez du maila bereko berdintasunik ekarri. Gaur egun, batez besteko soldatak askoz handiagoak dira gizonen kasuan, eta gutxi dira goi karguetara iristen diren emakumeak. Horren guztiaren zergatiak nahiko ezagunak dira: batez ere, arlo publikoa eta gizarte eragilean harremanak maskulinoak direlako, eta maskulinitatetik pentsatuak daudelako. Emakumeek, boteretik aldenduta egoteaz landa, etxeko eremuarekin lotuta egoten jarraitzen dute. Erdi txantxetan esaten diren “etxean andrak agintzen dabe” moduko esaldiak horren isla maltzurra ez ote dira? Emakumeentzako kontsolamendu faltsua. Ingurumaria honetan, badira ere gehiegi delegatzen duten emakumeak. Joko zelaia arrotz egiten zaielako, “horrek gizonen kontuek die” esan, eta pauso bat aurrera ematen ez dutenak.

Ez dakit igandean izango den Lilakrosean egoteko aukerarik izango dudan. Baina, behintzat, aldarri feministek arrazoi sendoak dituztela onartuko dut. Asko falta da berdintasunerako.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com



Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak,
Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa,
Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



**ATE
IREKIAK**
Martxoak 11
18:00-20:00